



LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Iztuetaren hiztegiaren iturriak: Mogel eta beste.

Gradu Amaiaerako Lana

Egilea: Josu Larrañaga Plaza.

Gradua: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2021/2022

Zuzendaria: Blanca Urgell Lázaro



Laburpena

Literatur gipuzkera eta literatur bizkaiera batak besteari bizkar emanda hazi diren literatur euskalkitzat eman ohi badira ere, aspaldi sumatu dira literatur bizkaieraren lorratzak XIX. mendeko gipuzkerazko idazle batzuetan, guztiz Zaldibiako “eskolakoen” artean (Iztueta, Lardizabal, Jauregi...). Horren kasu dugu Juan Ignazio Iztueta, zeinari buruz Aizkibelek zioenez (1860), Bizkai zaletasun amorratukoa izan zen idazlea dugu.

Hasiera batean, helburu nagusia 1847an argitaratua zegoen Iztuetaren *Condaira*-n literatur bizkaierako (Urgell 2018: 655) idazleen eragina aurkitzea izan zen. Hala ere, *Condaira*-n aurkitutako Mogelen *Peru Abarka*-ko hitz bat zela eta, helburu berri bat ezarri nuen. Beraz, lan honen helburu nagusia, Juan Antonio Mogelek idatzitako *Peru Abarka* liburuak izandako eragina neurtzea da, zehazkiago haren bukaerako hiztegitxoarena, Juan Ignazio Iztuetaren *Vocabulario de bascuence*-n (1832). Azpimarratzekoa da. *Peru Abarka*, nahiz eta 1802an idatzi, 1881era arte argitaratu ez zenez, Iztuetak ugari egin ziren haren eskuizkribuetako bat erabili behar izan zuela, oraingoz identifikatu ez dena.

Mitxelenak (1987) ere bazioen Iztuetak *PAbVoc* erabili zuela bere hiztegia osatzeko, hala ere ikerketa egin gabe zegoen, eragina norainokoa eta nolakoa zen jakitera heltzeko. Hauxe izan da nire egitekoa.

Orotariko Euskal Hiztegia-z eta *Euskal Klasikoen Corpora*-z baliatu naiz, Iztuetaren eta Mogelen hiztegien arteko kidesunak aurkitzeko bai eta, erkaketa zuzenaz ere. Honen bidez, ondorioztatu dut, Iztuetak *PAbVoc* ia osoki ustiatu zuela bere hiztegia egiterako orduan, euskal hitzak eta haien erdal ordainak ez ezik, azalpenak, adibideak, ideia ortografikoak, eta abar ere jaso zituelako. Hala ere, Iztuetak lana arineketan egin bide zuen, akatsak edo gaizkiulertu nahiko aurkitu ditudalako, hala euskal formetan nola erderazkoetan. Bideabar aukera izan dut Iztuetaren hiztegiko iturri gehiago aurkitzeko, hala lehendik ezagunak –Axular, Larramendi– nola ezezagunak –Arzadunen dotrina, Añibarro, Otxandioko manuskritua, Juan Jose Mogel, etab.– zirenak..

PAbVoc-ez gainera *Nom* argitaratua ere (1802) Iztuetaren hiztegiarekin erkatu dut. Zailagoa izan da *Nom*-en erabilera neurtzea, egitura bakunagoko hitz zerrenda izanik helduleku gutxiago ematen dituelako, bertatik, eta ez beste inondik hartua dela frogatzeko. Dena den, frogatutzat eman dut Iztuetak *Nom*-en erabilera egin zuela, nagusiki bietan bakarrik lekukotu diren formetan oinarrituta.



Aurkibidea

1. Sarrera.....	1
1.1. Aurrekariak.....	2
1.2. Ikerketa prozesua	3
1.2.1. Hasierako helburuak.....	3
1.2.2. <i>Condaira</i> -ren azterketa.....	4
1.2.3. Hasierako emaitzak.....	5
1.2.3. Helburu berriak	7
2. Garapena.....	8
2.1. Mogel balizko iturri bezala.....	8
2.1.1. Erkatuko diren lanak.....	8
2.1.1.1. <i>PAbVoc</i> eta Iztuetaren hiztegia erkatuz.....	9
2.1.1.2. <i>Nomenclatura (Nom)</i> eta Iztuetaren hiztegia erkatuz.....	27
2.2. Iztuetak aipatutako beste idazleak.....	36
3. Zailtasunak.....	39
4. Ondorio orokorrak	41
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	44
6. Mogelen eta Iztuetaren hiztegietako sarreren baterortze edo antzekotasunak	46
6.1. <i>PAbVoc</i> eta Iztutaren hiztegia parez pare	46
6.2. <i>Nom</i> eta Iztuetaren hiztegia parez pare	71



1. Sarrera

Juan Ignazio Iztueta, XIX. mendean bizi izan zen euskal idazle eta hiztezigilearen gainean azken urteetan sortu diren hipotesien gaineko aurrerapausoei buruz hitz egingo da, bere obretan zein bere hiztegian sumatu izan den bizkaiera zaletasunaren gainean, batik bat.

Hasteko XIX. mendearen hasieran kokatu behar gara, Lehen Euskara Modernoan. Garai haietan, Blanca Urgellek zioenez (2018: 551), XIX. mendean zehar, jarrera laikoagoak onartuko zituen euskaltzaletasunak, Europan zehar zabaltzen ari zen herria “berraurkitzeko” (Burke 1991) eta lehenagokoaz bestelako “komunitate irudikatu” bat eraikitzeko (Anderson, 2011) mugimenduaren barruan. Horrela, Iztueta zaldibiarrek giro erlijioso orokor hori alde batera utzi eta folklorea eta historia landu zituen, euskaraz lehen aldiz.

Hauek izan ziren Iztuetak utzi zizkigun obrak: *Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira* (1824) eta *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira* (1847). Bigarren obra honi, hemendik aurrera *Condaira* deituko diogu. Bestalde, aipagarria da *Condaira*-ren atzean, bere lana hobeto ulertzeko helburuaz, euskara-erdera hiztegitxo bat dagoela txertatuta, hala ere, oraindik ez da ikertu berea den, ala *Condaira* argitaratu zutenena¹.

Bi liburu nagusi hauez gain, olerkiak, erdarazko lan batzuk –*Trabajo sobre el método que se debiera seguir en las escuelas de primera enseñanza de esta región, para enseñar castellano eta trabajo escrito en castellano sobre el origen de los apellidos vascongados eta Relacion de los curas de gipuzcoa*–, argitaratu gabeko hiztegi bat, etab. idatzi zituen (Aranburu et al, 1993: 110-111).

Iztuetaren obretan, Bizkai zaletasuna nabaritu izan da, eta azken urteetan ez dira gutxi Iztuetaren lanetan bizkaierarekiko interesa sumatu dutenak, bere hiztegian (Mitxelena 1988, Sarasola 2002, Urkizu 1996) edota bere lanetan (Urgell 1999). Batik bat, bizkaieraren zantzuak sumatu izan baitira bere lanetan, literatura bizkaiera sortu ondoren idatzi baitzuen, 1820ko hamarkadan.

¹ Juan Ignazio Iztueta *Condaira* argitaratu baino bi urte lehenago hil zen, 1845ean.



Hala, literatura bizkaierak 1802an izan zuen bere sorrerako bultzada, horrela, literatur gipuzkera sortu ondoren hasiko zen. Bultzada honek, urte gutxi iraun zituen, 1820 geroztik, Jose Antonio Uriarte idazle arrigorriagarraz aparte, ez baitzuen ia inork idatzi (Urgell 2018: 655-656). Hala, literatur bizkaieraren gailurra, 1816-1820 bitartean etorriko zen frantseste gerrate luzearen ondoren Markinako eskolaren bidez gehienbat, non, Frai Bartolomeren bi obrek, Pedro Jose Astarloaren obaren bi liburukiak eta Juan Jose Mogelen 1816ko lanak argia ikusiko zuten (Urgell 2018). Garai hartan, Frantziako Iraultzak dakarren ondorioek astinduko dute euskal literatura XIX. lehen mende erdian. Bertan, frantsesteko gerrak (1793-1795, 1808-1814), Kadizko Konstituzioa (1812) eta abar (Urgell 2018: 585).

1.1. Aurrekariak

Literatur gipuzkera eta literatur bizkaiera bata besteari bizkar emanda hazi diren literatur euskalkitzat eman ohi badira ere, sumatu dira literatur bizkaieraren lorratzak idazle gipuzkoarretan.

Resurrección Maria de Azkue izan zen lehena konturatzen Lardizabal zaldibiarren Bizkai zaletasunaren zantzuez. Hortik, Lardizabalen bizkaizaletasuna Frai Bartolomeren eraginari egotzi zion (Urgell 1999: XLVIII) ². Hala ere, Urgellek (1999: L), foku berri bat eman zion, hitz batzuk Astarloarenak izan zitezkeela adieraziz, Frai Bartolomerekin denak azaldu ezin zitezkeelakoan. Azkenean, horrela adierazi zuen Urgellek (1999):

Halaber, egiantza handiarekin Iztueta litzateke Lardizabalengan Bizkai-kutsu zaletasuna piztu zuena; izan ere, *gitxi, uri* bezalakoak bereak dira Lardizabalenak baino lehenago eta, (...). (Urgell 1999: LIV)

Beraz, Iztuetak Lardizabalen lexikoan izan zuen eragin hadia mahai gainean jarri ostean, iradoki zuen Iztueta bera izan zitekeela Zaldibiako eskolakoen “Bizkai kutsu” haren eragilea, herri berekoak ez ezik, lagunak ere bazirelako.

² “Lardizabalen liburu Eder onetan Bizkai-kutsua noiztanka ageri da. Eun aldiz irakurri dugu *gitxi gutxi*-ren orde; *igarle* esan beharrean *bera izan da igarla* edo *profeta* dio (109-31). (...) Nere ustez, Frai Bartolomeren liburuak irakurrian erdalkeri batzuen gainera, itz ta esakera geien oriek ikasi eta beretu izango ditu.” (Azkue ap. Urgell, B. 1999: XLVIII).



Hori dela eta, aipatzekoa da, Iztuetak Lardizabali sorrarazitako Bizkai zaletasunaren frogarik gorena, Iztuetaren *Vocabulario de Vascuence*³ litzatekeela. Gainera, (Aranburu et al. 1993) hiztegi hau, Larramendiren hiztegiaren osagarri gisa moldatu zen eta liburuetatik eta herrien jaietatik jasotako bizkaierazko hitzez osatua da.

Ildo horretatik, Urgellek (1999: LIV) honela azaltzen du: “Iztuetaren bizkai-zaletasunaren frogagarririk hoberena bere hiztegia da. Bere aurrean [Jose Francisco de] Aizkibelek idatzi zuenez: «Esta escrito de su puño, como apendice al Diccionario de Larramendi sacado del dialecto Byzcaino tanto de obras impresas, como de lo oido vulgo» (Aizkibel, J.F. 1860-4-18)”.

Iztuetaren hiztegian, nahiz eta 1832an ezartzen den *ante quem* data (Urkizu 1996: 14), ez zen XIX. mendean argitaratu. XX. mendearen amaieran argitaratu zen, 1996an, Patrizio Urkizuren bidez. Bertan, Urkizuk dio (1996: 13) Iztuetaren obretan maizenik ageri diren idazleak Kardaberaz, eta gutxiagotan Larramendi, Mogel, Astarloa eta Axular direla. Bai eta, aipatuak ez izan arren, garbi dago, irakurriak eta arakatuak zituela Olaetxea [dimarra], [Frai Bartolome] Madariaga, Agirre Asteasukoa, etab.

Iztuetaren hiztegi “Atomo” sarreran (1996: 45) Kardaberatzen izena irakur daiteke, baina hortik aurrera Urkizuk (1996:13) ez digu froga sakogonorik ematen, aipatu zituen izen horiek nondik edo nola jakin dituen.

1.2. Ikerketa prozesua

1.2.1. Hasierako helburuak

Aurrekarietan aipatutakoa kontuan hartuta, lan honen helburu nagusiak bi ziren. Alde batetik, Iztuetaren Bizkai zaletasunaren zantzuen berri ematea, hau da, Iztuetaren lexikoan bizkaierak nolako eragina izan zuen aztertzea eta eragin hori nondik datorren arakatzea.

Suposatzekoa da, Iztuetak, XIX. mende hasierako literatur bizkaierako idazleak irakurriko zituela eta haiengandik lortuko zituela, bai haiek erabilitako hitzak, eta baita euren forma eta aldaerak ere. Zeren eta, Iztueta literatur bizkaieraren hasierako bultzada

³ Oraindik aurrera, Iztuetaren hiztegia deituko dugu.



haren ondoren, 1820ko hamarkadan, hasiko baitzen idazten. Hori frogatzeko asmoz, Iztuetaren *Condaira* irakurtzeari ekin nion.

Beste alde batetik, testu baten iturri lexikoak frogatzeko metodologia eta baliabideak erabiltzen ikastea izango da beste helburu nagusia. Horretarako iturrien bilaketa burutzeko, *Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH)* eta *Euskal Klasikoen Corpusaren (EKC)* erabilera egingo dut.

1.2.2. *Condaira*-ren azterketa

Lehendabizi, literatur bizkaierako egileren bat Iztuetaren iturritzat ematea zegokeen egiaztatzeko, *Condaira*-k dituen 550 orrialdetan aurkitutako bizkaiera usaineko hitzak eta formak *OEH*-n bilatu nituen, bai eta Iztuetaren *Condaira*-n ulertzen ez nuen hitz bakoitza ere. Hala ere, hitz franko aztertu arren, ondorioak oso urriak izan ziren, zeren eta *OEH*-n bilatutako hitz gehienak Larramendiren *Hiztegi hirukoitzari* (1745) zegozkionako, espero zitekeen bezala, zeren eta “Lehen Euskara Modernoan, maila batean aritu ziren idazleak, Larramendiren hiztegia izan baitzuten oinarri” (Urgell 2018: 573).

Hala ere, gutxinaka, Markinako eskolako lexikoa agertzen joan zen. Adibidez, *ipinle* edo *aurkile*. *OEH*-ren arabera (s.v. *ipinle*), *ipinle*-ren lehen lekukotasuna Pedro Jose Astarloaren *Urteko Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* (1816-18) litzateke eta beste lekukotasunik ez da agertzen Iztuetaren *Condaira*-ra arte. *Aurkile*-ren lehenengo dokumentazioa ere (*OEH*, s.v. *aurkile*) Pedro Jose Astarloaren *Domeka gustijetaraco* lan berekoa litzateke, eta Iztuetaren *Condaira* litzateke hurrengo dokumentazioa. Beraz, hauek liburu beretik atera zituen. Hemen esaldiak:

<i>Urteko Domeca (1816-1818)</i>	<i>Condaira (1847)</i>
Jaungoikua bera dala Abe Marijaren <u>ipinle</u> edo autore. Astar II 271	Zebuko Uriaren <u>ipinlea</u> . Izt C 501.
Meziaren <u>aurkile</u> , ipinzaile edo autore da Jesu Kristo bera. Astar II 209.	Don Francisco Javier de Lariz, Katezismo euskarazko biren <u>aurkillea</u> . Izt C 470.

Gainera, Iztuetaren akats bat ikus daiteke. Iztuetak Astarloarengandik hartu zituen bi neologismo hauek biak —*ipinle* eta *aurkile*— ‘autore’ adiera dute *OEH*-k dioenaren arabera; hala ere, ez da horrela. Zeren eta, badirudi Iztuetak *aurkile*, *ipinle* bezala, ‘autore’ adierarekin erabiltzen duela, beharbada, Astarloaren adibide horretan oinarritu eta gaizki ulertuta, guztiak sinonimoak zirelakoan: *aurkile*, *ipinzaile* edo *autore* (Astar II 209).



Zeren eta, Iztuetaren esaldian agertzen den Francisco Javier de Lariz ez zen euskarazko bi katezismo-ren *aurkile*-a izan, baizik eta, autorea.

Beraz, bi neologismo hauek obra beretik ateratzeak eta, gainera, *aurkile* adiera txarto erabiltzeak, Astarloaren *Urteko domecac* (1816-18) irakurri izanaren frogak ematen dizkigu, ezin izan baititu neologismo hauek beste inondik lortu. Hala ere, oso emaitza urriak izaten jarraitzen zuten, Larramendiren itzala hain izan zen handia eta.

Honegatik, hau zioen Iztuetari buruz Aizkibelek (1860): “Tanto él [Iztueta] como Iturriaga no pueden menos de hacer uso abundante de neologismo, que en aquel entonces tenían que ser del cuño larramendiano: en el fondo, es Larramendi el que mueve a Iturriaga y a Iztueta.”

1.2.3. Hasierako emaitzak

Astarloaren emaitzak oso mugatuak ziren eta horregatik ildo berrien bila hasi nintzen. Hala, *Condaira*-rako egindako bilaketen zerrenda ikuskatu ostean eta aukeratutako hitzen iragazketa berri baten ondoren, Juan Antonio Mogelen hitz bat agertu zen *Condaira*-n ustezko iturri argi gisa. Hitz hori *koldar* da.

Koldar hitza, *OEH*-ren arabera (s.v. *koldar*), Mogelen *Peru Abarka*-ren atzeko hiztegian (*PAbVoc*) agertzen da lehen aldiz, eta hurrengo agerraldia Iztuetaren hiztegiakoa da. Beraz, horren ostean, *Condaira* alde batera utzi nuen eta, Iztuetaren *Vocabulario de Vascuence*-n zentratu nintzen, aurkitutako ildo jarraitu ahal izateko.

Horretarako Patri Urkizuren edizioa (1996) hartu nuen kontutan; hala ere, Urkizuren edizioak sortutako dudak izan ditudanean, sareko Koldo Mitxelena liburutegian (cf. www.kmliburutegia.eus) libreki irakur eta kontsulta daitekeen Iztuetaren *Vocabulario de Vascuence*-ren eskuizkribua ikuskatu dut.

Lexikografo eskas bezala hasi nintzen. Hau da, lexikografian hiztegiak beren artean alderatu nahi direnean, bi hiztegiatan agertzen diren sarrerak konparatu ohi dira, *OEH*-n bilatu gabe. Hala ere, nik *Condaira*-n jarraitutako protokolo berarekin jarraitu nuen lanean, eta *PAbVoc*-eko sarrera guztiak *OEH*-n bilatu nituen, Iztuetarekin erlazioa zuten frogatzeko. Hortaz, hasiera batean, Mogelen *PAbVoc*-eko *koldar* sarrera Iztuetaren hiztegiako *koldar* sarrerarekin erkatu nuen eta ikusi nuen biak berdintsu agertzen direla:

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
---------------	----------------------------



“Koldarra, koldartu <i>Cobarde, debil;</i> <i>acobardarse.</i> ”	“ <i>Cobarde</i> koldarra. <i>Acobardarse</i> Coldartu.”
--	--

Berdintasuna bistakoa zen, eta batetortze gehiago agertzen joan ziren. Hala ere, arazo bat zegoen, kontuan izan behar zena: Mogelen *PAbVoc* 1802an idatzi zen arren, lana ez zela 1881era arte argitaratu. Hortaz, nola zen posible 1881ean argitaratu zen obra baten zantzuak agertzea 1832koa izan zitekeen lan batean?

Hau buruan izanda, Altzibarren (1990) lan batekin egin nuen topo. Altzibarrek *PAb*-ren eskuizkribuak eta lehen edizioak aztertu zituen (1990). Autografoari dagokionez, Juan Antonio Mogel hil zenean, bere ilobei utzi zien. Eta hauek, jatorrizko eskuizkribua Zarauzko Frantziskotarren komentuari eman zioten bertan gorde zezaten. Horretaz aparte, Altzibarrek dio (1990: 872-880) beste 10 kopia eskuizkribatu ere izan zirela gutxienez.

Iztuetak noizbait *PAbVoc* aurrean izan bazuen, logika gehiena lukeena, Añibarro eta Zabalaren bidez Zarautzeko Frantziskotarren komentuan ezagutu izana da. Bi hauekin mantentzen duen berdintasun grafikoak direla eta⁴ (Urgell 1987: 364-3659. Hala ere, oraingoz ezin jakin zein erabili zuen.

Mitxelenak ere (1987) aurretik esana zeukan: “Asi Iztueta a pesar de su gipuzcoanismo, fue asiduo recolector de voces y frases vizcaínas –de ello da fe su diccionario manuscrito, aún inedito– (...)”.

Halaber, Sarasolak (2002: 613) hau zioen Iztuetaren hiztegiari buruz: “Bizkaierazko iturrien kontuan, esango nuke J. A. Mogelen Peru Abarka-ko bukaerako «Nomenclatura de diferentes voces bascongadas, comunes a los rusticos e ignoradas por no pocos de los bizcainos» osorik-edo sartu zuela Iztuetak, eta behin eta berriro aldatu bere hiztegiara.”

Gaur egun, Sarasolaren esana (2002: 613) inork ez du oraindik xeheki frogatu. Hau da, ez du oraindik inork frogatu Iztuetaren hiztegiak Juan Antonio Mogelen *PAbVoc*-etik daukan eragina.

⁴ Batik bat, gure <x> <sh>-rekin markatzen dutela hirurek. (cf. eranskina: *mingstasuna*) eta (cf. Urgell 1987: 364-365)



1.2.3. Helburu berriak

Orain arte aipatutakoak kontuan harturik, helburu berri bat ezarri genion gure lanari: Juan Antonio Mogelen *PabVoc*-ek Iztuetaren hiztegian daukan lekua aztertzea, Sarasolari jarraiki.

Helburu berri hau kontuan hartuz, beste galdera bat etorri zitzaidan burura. Nola zen posible Iztuetak *PAbVoc*-en berri izatea, eta argitaratua zegoen Juan Antonio Mogelen *Nomenclatura de las voces gipuzcoanas, para que se puedan entender ambos dialectos*⁵ (1802) berri ez izatea? Zeren eta, Iztuetak *PAbVoc*-eko eskuizkribua ezagutu bazuen, litekeena zen Mogelen *Nomenclatura (Nom)*⁶ argitaratua ere irakurria izatea.

Hala bada, aski litzateke *PAbVoc* Iztuetaren hiztegiko Mogelen ekarria azaltzeko? Ala *Nom* ere beharrezkoa litzateke? Galdera hauei erantzuna ematea izango zen lehentasuna.

⁶ Oraindik aurrera *Nomenclatura Nom*-en laburduraz adieraziko dugu.



2. Garapena

Alde batetik, Juan Antonio Mogelen lan lexikografikoak, *PAbVoc* eta *Nom*, Iztuetaren hiztegiko balizko iturritzat planteatuko dira, gure hipotesi eta helburu berriak frogatu daitezten, bai eta Sarasolak (2002: 613) dioena frogatzeko ere. Bestalde, Urkizuk (1996: 13) gainetik aipatzen dituen Iztuetaren hiztegiko iturrien zenbait konturi buruz ere hitz egingo da, bai eta beste ustezko iturri posible batzuen gainean, etorkizunerako ildo berriei bidea emanez.

2.1. Mogel balizko iturri bezala

Hasteko, ez da akats bateratzaile bat ere egiaztatu, baina bai kidetasun harrigarri asko hainbat alorretan: gaztelaniazko hitz edo esapide berak erabiltzen dituztela, euskarazko aldaera eta adibide berdinak, etab.

2.1.1. Erkatuko diren lanak

Hasiera batean, Iztuetaren hiztegia erkatuko da Juan Antonio Mogelen lan lexikografikoekin: lehenengo *PAbVoc*-ekin eta bigarren *Nom*-ekin. Ondoren, Mogelen bi lanek Iztuetarengan duten eragin maila ere neurtuko da. Horretarako, lehenik erabili ditugun hiztegi guztien deskribapen arin bat egingo dut.

Alde batetik, Patrizio Urkizuk 1996. urtean argitaratu zuen Iztuetaren gaztelania-euskara hiztegia (1832) erabiliko da. Hiztegiaren datazioa egiteko, hiztegiko *Atomo* sarreraren oinarritu da Urkizu (1996:14), bertan argi era garbi irakur baitaiteke 1832ko urtea. Hala, gaztelania-euskara hiztegi honek 226 orri ditu eta Sarasolak (2002: 613) egindako kalkuluen arabera 6800 sarrera inguru lituzke, alfabeto ordenaren arabera antolatuak.

Beste alde batetik, Juan Antonio Mogelek *PAb* 1802an idatzia zuen, baina ez zen 1881era arte argitaratu. Bere obrak 4 zati ditu eta azken zatian euskara-gaztelania hiztegi bat dago (*PAbVoc*). Bertan, *PAbVoc* 18 orritan banatuta dago eta 309 sarrera daude. Hala, hiztegi honen funtsa, baserritarrek erabili ohi dituzten eta bizkaitar askok ez dakizkiten euskal hitz batzuen zerrenda egitea zen.



Azkenik, *Nomenclatura de las voces gipuzcoanas, para que se puedan entender ambos dialectos* 1802an argitaratu zen, eta bizkaitarrak eta gipuzkoarrak euren artean ulertzeko sortutako hitz zerrendatxo bat da. Bertan Bizkaiko eta Gipuzkoako formak aurkituko ditugu eta alboan erdarazko itzulpena egongo da. *Nom*-en, 4 orritan, 162 sarrera daude. Hau jakinik goazen egindako azterketa azaltzera.

2.1.1.1. PAbVoc eta Iztuetaren hiztegia erkatuz

Kontestuan ezartzeko, *koldar*-en aurkikuntzaren ostean, *PAbVoc*-eko sarrerak *OEH*-n egiaztatu nituen, ea Iztuetaren hiztegian edo lanetan agertzen ziren jakin nahirik, bi idazleen arteko kidetasunak aurkitzeko. Eta gutxinaka, kidetasunak agertzen hasi ziren bi hiztegietakoko sarrerotan. Horrela izan zen prozesu osoa.

Hasieran, *PAbVoc*-eko lehen iragazketa gauzatzeko, *OEH* eta *EKC* erabili ziren. Lehen iragazketa horretan 70 hitz aurkitu ziren, hots, Iztuetaren *Vocabulario de Vasconce*-n Juan Antonio Mogelen *PAbVoc*-eko 70 sarrera berdin edo ia berdinek zeuden.

PAbVoc-eko sarreraren bigarren iragazketan, aldiz, 202 sarrera aurkitu nituen. Kasu honetan, *Peru Abarka*-ko hiztegi erdarazko sarrerak *OEH*-ren bilatzailean sartzean lortu nituen 132 kidetasun gehiago. Gauza da, *OEH*-ren bilatzailean erdal hitz bat jarritz gero eta definizioetan bilatzeko aginduz gero, ez direla agertzen horren euskarazko baliokideak, ez derrigor behintzat, baizik eta erdal hitz hori agertzen den euskarazko sarrera guztien zerrenda.

Azkenik, Mogelen *PAbVoc*-eko sarreraren hirugarren iragazketa bat ere egin zen *OEH*, *EKC* eta Iztuetaren hiztegia erabiliz. Honela guztira 241 sarrera agertu ziren, hau da, aurreko iragazketan baino 30 bat gehiago. Beraz, badirudi, 309 sarrera dituen hiztegi bat ia osorik kopiatu zuela Iztuetak bere hiztegian.

2.1.1.1.1. PAbVoc-eko eta Iztuetaren hiztegi erkatzeak

PAbVoc Iztuetaren hiztegiarekin erkatzeko, interesgarriak izan litezkeen hainbat alorretan jardungo dugu eta, hasteko, aurretik aipatu baino egin ez ditudan batetortze nabarmenen adibideak ezarriko ditut. Hots, begien bistako berdintasunak.



<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia (Izt)
“Ornidu ó imini ornijan <i>Poner algo en seguridad ó deposito, sea en el juego, sea en el apueste, para que lo lleve el ganador. Tambien se aplica al prestamo.</i> Ornidu eguidazu, <i>prestame.</i> ” <i>PAbVoc</i> 235.	“ <i>Seguridad, poner algo en seguridad, sea en el fuego, ó apuesta para que lleve el que gana Ornidu o imini onrnian. Tambien se aplica al prestamo.</i> Ornidu eguidazu; <i>prestame.</i> ” Izt 109v
“Bardia ó zarbia, chusaquia ó garija <i>Ramillas de árboles ó chamiza. Todas las cuatro voces son sinonimos.</i> ” <i>PAbVoc</i> 223.	“ <i>Ramilas de árboles Bardea, zarbea, chuchakea, iguri-ia; las cuatro voces son sinonimos.</i> ” Izt 102r
“Güena <i>Fin, término ó lo exterior de la cosa. De aqui multitud de apellidos tomados por la circunstancias de la casa.</i> Ibaigüen, <i>fin del rio</i> Ibargüen, <i>termino de la ribera.</i> Urigüen, <i>fin del pueblo...</i> Eznaiaren güena.” <i>PAbVoc</i> 229.	“ <i>Fin termino ó lo exterior de la cosa</i> Güena. <i>De aqui multitud de apellidos tomados por las circunstancias de la casa.</i> Ibargüen <i>Fin del rio.</i> Ibargüen <i>termino de la ribera (mejor del valle).</i> Urigüen <i>Fin del pueblo.</i> ” Izt 51v.

Honelako batetortzeek erakusten dute bi hiztegien arteko hartu-emanan, bereziki sarrerek daukaten bolumenagatik eta, aldeak alde, partekatzen dituzten xehetasun ugariengatik. Adibidez, *PAbVoc*-en *Bardia* sarreran ematen diren 4 sinonimoek ordena bera jarraitzen dute *Iztuetaren hiztegia* ere, eta ondoren “cuatro voces sinonimas” dakarte bi hiztegiek. Ez genuen gutxiago espero, emaitzetan ezarri baitugu *Iztuetak PAbVoc*-en 309 sarreretatik 241 bat kopiatu zituela. Hala ere, zenbait kasutan batetortze horiek ez dira agerikoak.

2.1.1.1.2. *PAbVoc*-eko sarrera ez-argiak

Batzuetan batetortzeak dauden arren eta sarrera gehinetan berdintasun nabarmenak dauden arren, esan beharra dago *PAbVoc*-eko sarrera guztiak ez direla fiatzeko modukoak, dela euskal forma ezberdina dakartelako, dela erdal ordaina. Kasu honetan, guk eranskinean ikusi ditugun argienak emango ditugu:



3. taula

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Izoquiña <i>Salmon</i> .” <i>PAbVoc</i> 231	“ <i>Salmon</i> Izokia.” Iztuetaren hiztegia 108v.
“Chirindolia <i>Cosa que va dando vueltas</i> ” <i>PAbVoc</i> 225	“ <i>Silbillo que se forma con la caña de alguna yerba, como de trigo ó cebada</i> Cimbrunea. <i>Cirrindolea Una cosa que va dando vueltas</i> ” Iztuetaren hiztegia 111r.

Sarrera hauetan euskal ordaina ezberdina da, arrazoiak arrazoi, baina erdal azalpena berdina. Adibidez, *izokia* forma *OEH*-n sartzerakoan (s.v. *izokin*), Larramendi agertzen zaigu lehen lekukotasun moduan, eta kontuan hartuta Urgellek dioena (2018: 573; ikus § 1.2.2), eta Iztuetak duen Larramendirekiko zaletasuna, litekeena da Larramendirengandik hartu izana.

Bestalde, *chirindolia* (*PAbVoc* 225) / *cirrindolea* (Izt 111v) aldaerek badirudi ez dutela zerikusirik beraien artean. Hala ere, biek dakarte erdarazko parte berdina eta, gainera, *OEH*-ren arabera *PAbVoc* eta Iztuetaren hiztegian baino ez da lekukotzen. Beraz, aldaera desberdina izan arren eta duda sortu arren, lekukotasun bakarrak *PAbVoc* eta Iztuetaren hiztegikoak izateak *PAbVoc*-etik hartu izanaren frogak ematen dizkigu.

Hala ere, euskarazko ordainak ez dira beti dudak ematen dituztenak. Zenbait kasutan, Iztuetak desberdin kopiatu zituen erderazko ordainak ere. Adibidez:

4. taula

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Tramanculuba <i>El amazon de alguna maquina, como de telar, ect.</i> ” <i>PAbVoc</i> 238	“ <i>Banco largo de madera tosco campepé</i> ⁷ grotesco Tramanculua” Izt 18v

⁷ *Campepe* ez da ezagutzen, baina, eskuizkribuan ezin da irakurketa hoberik aurkitu. Beraz, dagoen bezala utziko da.



“Ardi-aldria ó artaldria <i>rebaño de ovejas</i> ” <i>PAbVoc</i> 222	“ <i>Rebaño de ovejas</i> Ar-taldrea” eta “ <i>Rebaño de cabras</i> Ar-dialdra” Izt 103r
---	---

Taula honetan, aldiz, euskal ordainak berdin ageri dira eta erderazko ordaina eta esplikazioa aldiz, desberdin. Adibidez, *tramanculu* (*PAbVoc* 238) / *tramanculu* (Izt 18v) kontuan hartuz ikusten da *PAbVoc*-eko erdal zatia ez datorrela bat Iztuetaren *tramanculu* sarreraren erdal zatiarekin, zalantza sortuz. Hala ere, hitz hau *OEH*-n begiratzearekin bat esan daiteke Mogelengandik hartu beharko zukeela, batik bat, Mogelez aparte, Iztuetak baino ez duelako dokumentatu.

Bigarrenik, *ardi-aldria* (*PAbVoc* 222)/ *ar-dialdria* (Izt 103r) daukagu, non ederki antzematen den Iztuetak gaizki itzulitako itzulpen baten aurrean aurkitzen garela, zeren eta Mogelek “*rebaño de ovejas*” baitakar, eta Iztuetak, aldiz, “*rebaño de cabras*”. Gainera, Iztuetak hitzaren banaketan ere ez zuen asmatu, *ardi-aldria* jarri beharrean, *ar-dialdra* jarri baitzuen. *OEH*-n eta *EKC* begiratzen izan naiz, eta *OEH*-k bi dokumentazio baino ez ditu markatzen forma honekin, biak XIX. mendekoak eta biak markinarrak: Astarloa eta Juan Antonio Mogel. Beraz, hau kontuan hartuz, nahiko ziurra dirudi *PAbVoc*-etik kopiatu izana, baina badirudi presaka kopiatutako zerbeit dela.

Beraz, esan beharra dago denak ez direla batetortzeak, eta Iztueta eta Mogelen partetik dudazko zenbait sarrera ere aurkitu genitzakeela. Hala ere, *OEH*-ren bidez batzuk azaldu daitezkeen arren, denak ezin jakin *PAbVoc*-etik hartu zituen.

2.1.1.1.3. Mogelen lehen lekukotasunak

Iztuetaren hiztegiarekin dauden batetortze haueko asko, gainera, Mogelek lehen aldiz *PAbVoc*-en lekukotako sarrerak lirakeke, eta horien artean badira zenbait ordain Mogelek eta jarraian Iztuetak dokumentatu zituztenak, “Mogelen hapaxak” deituko diegunak. Ezaguna denez, “hapaxak” corpus batean behin baino agertzen ez diren hitz, hitz-forma edo adierazpideak dira. Guk era pixka bat ezberdin batean erabiliko dugu,



Mogelek lehenengoz jaso eta bigarrenaz Iztuetak bere hiztegian⁸. Horretarako lehenago Mogelen *PAbVoc*-eko lehen agerraldiak aurkituko ditut.

Hala, *OEH* eta *EKC*-n egindako bilaketen ondoren, *Peru Abarka*-ren atzeko hiztegitik Iztuetak hartzen dituen 241 sarreretatik 75 sarrera, sikieran, Juan Antonio Mogelek, lehen aldiz, *PAb*-n lekukotutakoak direla ikusi izan da eta geroago Iztuetak ere bere hiztegian txertatuak. Zehazki, *PAbVoc*-en %24,3 lirateke.

Hitz hauen lehen lekukotasuna Mogelen *PAbVoc* litzateke. Hots, lehen aldiz Mogelek dokumentatuak⁹: *abepelu*, *apoñu*, *aotu*, *añubia*, *alkarren leijan*, *andui*, *arretondo txarra eguin*, *atondur*, *banatur*, *atzetasuna erakutsi*, *bezegi*, *besengea*, *biraldatur*, *bitsadera*, *dalea*, *dontsu*, *durdu*, *egoki*, *erregutatur*, *garondoko*, *geun*, *oben*, *ornitur*, *ibitur*, *inutur*, *irabiatur*, *itu-itua*, *itxurga*, *itzulastur*, *kimaatur*, *koldar*, *konkor*, *lagantaur*, *lakazke*, *lake*, *laako*, *larranza*, *leuso*, *luzanga*, *maluskatur*, *matxar*, *mukirio*, *miliki*, *neurdir*, *orriuldu*, *orube*, *larrapust*, *ozkirriur*, *pekur*, *pentstur*, *sarrakior*, *senean ibiliri*, *tint*, *tramankulur*, *triskatur*, *truinur*, *txirringolur*, *ulabior*, *uzarkia*, *zarrapaztatur*, *zerden*, *zerzeladur*, *zigarra*. (cf. 1. Eranskina)

Mogelek lehen aldiz lekukotu zituen 75 sarrerak berriro iragazi dira eta *OEH*-n egiaztatutako dira, Mogel eta Iztuetak soilik lekukotuta dituztenak aurkitzeko. Hau da, goian aipatutako “Mogelen hapaxak” aurkitze aldera. Hauek lirateke “Mogelen hapaxak”: *Abepelu*, *aotu*, *arretondo*, *beseingear*, *bitsadera*, *dalea*, *egoki*, *erregutaur*, *oben*, *ornidur*, *konkor*, *laka*, *matxar*, *mukirio*, *miliki*, *neurdir*, *orriuldu*, *larrapust*, *senean ibiliri*, *txirringolur*, *ulabior*, *uzarka*, *zaparrastaur*, *zigarra*. Batzuk azaltzearen:

- *Dalea*: *OEH*-ren arabera, Mogelen *PAbVoc*-ekoa litzateke lehen dokumentazioa eta Iztuetaren hiztegiakoa azkena. Biak datoz sarrera berdintsu batekin. Hala ere, Mogelek

⁸ Ez dut, Azkue-ren hiztegiak dokumentaziorik kontuan hartu. Zeren eta, litekeena da *PAbVoc*-eko hitzak bere hiztegian sartu izana, Azkuek berak argitaratu baitzuen *PAb* 1881ean.

⁹ Mogelek lehen aldiz lekukotutako hitzak dira, hala ere, denak ez dira “mogelen hapaxak”. Zeren eta, Iztuetaz aparte beste lekukotasun batzuk ere ikusi litezke sarrera batzuetan. Beraz, sarrera hauek *PAbVoc*-eko lehen dokumentazioak dira. Baina, “mogelen hapaxak” aurkitzeko bide egokia ikusi dut.



itzulpentzat *piedra radera*¹⁰ ezarri zuen segur aski, *vadera* jarri nahiko zukeenean aldrebestuta. Iztuetak, aldiz, bere hiztegiara kopiatzen duenean *vadera* ezartzen du.

“*Dalia Piedra radera*” *PAbVoc* 225 vs “*Vadera* piedra Dalea” Izt 120r (cf. *OEH*, s.v. *dalea*)

- *Ulabio*: XIX. mendearen lehen erdialdeko bi dokumentazio baino ez ditu (*PAbVoc* eta Izt), hirugarren eta azkena Azkueren hiztegiakoa delarik.

“*Ulabijua*, *curuminua Abispa*. *PAbVoc* 240 vs “*Abispa* Curumiñua, *ulabioa*, *curibioa*.” Izt 3r. (cf. *OEH*, s.v. *ulabio*)

- *Zigarra*: *OEH*-ren arabera, “*arador de sarna*” da adiera nagusia; hala ere, Mogelentzat *zigar* “*liendre*” esan nahi luke. Adiera horretan dokumentatu zuen lehenengoa izan zen, *PAbVoc*-en, eta “*liendre*” esanahia duen *zigar* formaren azken lekukotasuna Iztuetaren hiztegiakoa da.

“*Cigarra liendre*” *MgPAbVoc* 225 vs “*Liendre cigarra*” Izt 68r (cf. *OEH*, s.v. *zigar*)

Beraz, *PAbVoc*-eko 309 sarreretak 25 bakarrik Mogelek eta Iztuetak lekukotuak dira, nahiz eta, zenbait hitzetan XX. mendeko norbaiten lekukotasun bakanen bat irakur daitekeen: adibidez, Azkueren agerraldi bat, dudarik gabe hau ere zuzenean *PAbVoc*-etik hartua.

2.1.1.1.4. Ezaugarri fonetikoak

Markinarraren aldaera asko bere horretan mantendu zituen, askotan, Iztuetak bere hiztegian. Adibidez, *lotsoor* (*PAbVoc* 233) / *lotsoor* (Izt 121r). Haien artean, gainera, Iztuetak eta Mogelek soilik dokumentatutako aldaerak ere aurkitu ditut askotan.

Horren erakusbide da *linatazi* (*PAbVoc* 233) / *linatazi* (Izt 56v) sarrera: *OEH*-ren arabera (s.v. *inatazi*), aldaera horrek hiru dokumentazio baino ez ditu *PAbVoc*-ekoa, Iztuetaren hiztegiakoa eta *Condaira*-koa. Baina *linatazia* ez da adibide bakarra; adibidez:

5. taula

¹⁰ *OEH*-ren arabera, Mogelen *PAbVoc*-eko errata litzateke *radera*. Iztuetak bere hiztegian *vadera* ezarri zuen.



<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Gera ona edo charra egin <i>Hacer buena o mala acogida.</i> ” <i>PAbVoc</i> 228.	“ <i>Acogida, buena o mala</i> Gera ona edo txarra” (Izt 4v)
“ <i>Laakua palo atravesado.</i> ” (<i>PAbVoc</i> 232)	“ <i>Tapón, palo atravesado por algún haz para cerrar algun agujero</i> Laakoa. Orrek dauko zulo bakotxeko laakoa, <i>ya tiene ese para cada agujero su tapa, ese tiene respuesta para todo, laako.</i> ” (Izt 114v)
“ <i>Leusua Neblina. De aqui</i> ipar leusua, beguijetaco leusua.” (<i>PAbVoc</i> 232)	“ <i>Neblina</i> Leusoa. <i>De aqui</i> Iparleusoa, beguietaco leusoa.” (Izt 78r)

Adibide moduan aukeratutako hitz hauetan, ederki ikusten da aldaera berdinak mantentzen dituztela. Hirurak azalduko ditut banaka-banaka, gainera baino ez bada ere:

- *Linatazia* (OEH, s.v. *inatazi*): OEH eta EKC-ren arabera, *linatazi* aldaera Moglek dokumentatu zuen lehen aldiz *PAbVoc*-en, ondoren Iztuetak txertatu zuen bere hiztegian eta, hirugarren eta azken, Iztuetaren *Condaira*-n ere badago (1847: 235). Beraz, *linatazi* ez da XIX. mendearen lehen erditik gehiago dokumentatu, nahiz *linatazi* l-hasieradun aldaera gaur egun arte erabiltzen jarraitu duten. Salbuespen bat egin behar dugu, ordea: Azkuek bere hiztegian *liñatasi* (V-ger-arr) jaso zuen, txistukari apikaridun aldaera hobetsiz, antza denez.

“*Linatacia u chingorra Granizo.*” *PAbVoc* 233. vs “*Granizo* Escabarra, cascabarra, *linatacia, chingorra.*” Izt 56v.

- *Leuso* (OEH, s.v. *lauso*): OEH eta EKC-ren bidez, konturatu naiz “neblina” moduan dokumentatuta dagoen *leuso* aldaera Moglek dokumentatu zuela lehen aldiz, *PAbVoc*-en, eta horren ondoren Iztuetak bere hiztegian. Ez zen gehiago adiera honetan *leuso* aldaera dokumentatu, *lauso* baizik.

“*Leusua Neblina. De aqui* ipar leusua, beguijetaco leusua.” *PAbVoc* 232 vs “*Neblina* Leusoa. *De aqui* Iparleusoa, beguietaco leusoa.” Izt 78r.

- *Laako* (OEH, s.v. *larako*): Aldaera hau Moglek dokumentatu zuen lehen aldiz, *PAbVoc*-en, hurrengo dokumentazioa Iztuetarena da, eta berriro ere hurrengo Azkueren hiztegikoa.



“Laakua *Palo atravesado*” *PAbVoc* 232 vs “*Tapón, palo atravesado por algún haz para cerrar algún agujero* Laakoa. Orrek dauko zulo bakoetako laakoa, ya tiene ese para cada agujero su tapa, ese tiene respuesta para todo, laako” Izt 114v.

Bestalde, aurreko adibideetan parez ikusienez, Iztuetak bere hiztegien garaiko markinarren eskolako fonetismoak ere hartu zituen zenbait kasutan, bai bokal bikoitzak, bai “eufoniak” deitu ohi direnak ere. Horren adierazle garbi da *uzarkia* (*PAbVoc* 240 eta Izt 31r), *uzarka* + *-a*-ren emaitza (ik. *OEH*, s.v. *uzarka*). Antzekoak dira hurrengo adibideak:

6. taula

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Eraatsi ó iraatsi <i>Pegar una cosa a otra.</i> ” <i>PAbVoc</i> 227.	“ <i>Encolar, unir, pegar una cosa á otra</i> Eraatsi, iraatsi.” Izt 43r
“ <i>Obaatasuna Mejoría.</i> ” <i>PAbVoc</i> 235.	“ <i>Mejoría Obaasuna por obaatasuna.</i> ” Izt 72r
“ <i>Lotsoorra ó lotsatija Vergonzoso.</i> ” <i>PAbVoc</i> 233.	“ <i>Vergonzoso Lotsarizcoa, lotsoorra,</i> lotsatia.” Izt 121r

Goiko adibideetan ederki ikusten da goian ahotan hartu duguna, bai bokal bikoitzak, bai eufoniak. Hala, XIX. mendearen hasieran markinarrek oraindik absolutibo pluralerako *-aak* eta inesiborako *-aan* erabiltzen zuten, bai eta erro barruko bokal bikoitzak ere (Urgell 2018: 615). Horren etsenplu ditugu *eraatsi* eta *lotsoor* bezalako erro barruko bokal bikoitzak.

Iztuetak batzuetan bere horretan utzi zituen Markina aldeko eufoniak ere. Horren kasuko da arestian komentatu dugun *uzarkia* sarrera, $a + a > ea > ia$ egiten baita, hots, $uzarka + -a > uzarkea > uzarkia$ (Urgell, 2018: 616). Bai eta *laakua*, non argi eta garbi $o + a ua$ bihurtu den: $laako + a > laakua$.

Honez gain, Iztuetak *PAbVoc*-eko sarreretako hainbat esaldi ere kopiatu zituen bere hiztegien, Mogelen hiztegien zeuden bezala, markinarraren aldaera berdinekin. Adibidez:



7. taula

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Adijon <i>Lo preciso</i> . Se conserva esta voz en el adagio: <i>Alaba bi, ta iru seme, adijon ume.</i> ” <i>PAbVoc</i> 221.	“ <i>Lo preciso</i> Adion. <i>Se conserva esta voz en el adagio</i> Alaba bi, ta iru seme, adijon ume.” Iztuetaren hiztegia 69v
“Neurdin <i>Como quiera</i> . <i>Por ejemplo, en vano quebrare la cabeza contigo</i> , neurdin alperric ausico dot zugaz buruba.” <i>PAbVoc</i> 234.	“ <i>Como quiera</i> Neurdin edocelan; ez edocelan, <i>no como quiera en vano</i> , v.g. <i>en vano quebrarse la cabeza contigo</i> . Neurdin o alperric ausico dot zugaz burua.” Iztuetaren hiztegia 26v.

Lehenengo adibidean, Iztuetak *adion* kopiatu zuen aurrenik, baina gero, Mogelen adibidea kopiatzerakoan, *PAbVoc*-eko esaldian agertzen zen moduan ezarri zuen: *adijon*, aurretik inork dokumentatu ez zuen aldaera (ik. *OEH*, s.v. *adinon*). Bigarrean ere Iztuetak Mogelen adibidea berdin-berdin kopiatu zuen.

Hortaz, Mogel eta Iztuetaren aldaeretan batetortzeak egoteak eta hauen dokumentazio edo lekukotasun bakarrak bi hauenak izateak, noizbait Iztuetak Mogelen *PAbVoc* aurrean izan zezakeelako frogak ematen dizkigu.

2.1.1.1.5. Mogelen *PAbVoc*-eko sarreretatik Iztuetak bi sarrera edo gehiago

Hala, Iztuetaren hiztegia gainetik begiratzen nengoela, sarrera bat egin zitzaidan nabarmen. “*Desaliñado, descompuesto*, Nabarmena” (Urkizu 1996: 81). Sarrera hau Iztuetaren hiztegian bi aldiz, agertzen zen. Bata “*Desaliñado, descompuesto*, Nabarmena”, eta bestea “*Descompuesto, desaliñado*, Nabarmena”. Bi sarrerak Urkizuren hiztegian, alboko orrialdeetan agertzen ziren (1996: 81-82).

Hau da, sarrera biak funtsean, sarrera bera ziren, baina erdal ordainen ordena aldaketa ikusi al zen. Horregatik, hiztegia begiratzen hasi nintzen gainetik ea hau gehiagotan gertatzen zen, nik eginda neukan eranskina kontuan hartuz (cf. 1. eranskina). Eta konturatu nintzen bi erdal hitz edo gehiago agertzen diren *PAbVoc*-eko sarrerek, “*Dalia, Piedra vadera*” kasuko, Iztuetaren hiztegian bi aldiz edo gehiago agertzeko joera dutela, hau da, Iztuetak erdal hitz biak bihurtu zituela sarrera-buru batzuetan. Adibidez,



dalea euskal ordainak bi sarrera ditu Iztuetaren hiztegian: lehena “*Piedra vadera Dalea*” (92v) eta bestea “*Vadera Piedra Dalea*” (120r). Segur aski Iztuetak nahi zuen sarrerak denbora motzagoan aurki daitezen.

Horrelako kasu asko eta asko daude. (Denak ikusi nahi izanez gero, XY eta XYZ-z markatuak, ikus 1. eranskina).

Hau kontuan hartuz, eranskineko sarrera guztiak begiratu ditut, eta Iztuetak bere hiztegiara kopiatu zituen *PAbVoc*-eko 241 sarrerei 72 sarrera gehiago gehitu behar izan dizkiet.

Guk egindako kontuen arabera, *PAbVoc*-etik kopiatutako 240 sarreretatik 66 bi aldiz edo gehiago errepikatzen dira Iztuetaren hiztegian: 62 sarrera birritan, eta gainerako 4 sarrerak hirutan edo gehiagotan, horrela 72 sarrera gehituz. Hemen grafikoa:



1. irudia

Laburtzeko, Iztuetak Mogelen *PAbVoc*-etik kopiatu zituen 241 sarreretatik 176 (%74) baten baino ez dira agertzen, 62 sarrera (%25) birritan agertzen dira eta, azkenik, 4 sarrera (%1) hirutan edo gehiagotan.

Hortaz, Iztuetak bere hiztegiara kopiatu zituen 241 sarrerei errepikatzen diren 72 sarrerak gehitu behar zaizkio. Ondorioz, *PAbVoc*-etik datozen sarrerak —nahiz eta batzuk errepikatuta egon— guztira 313 dira.

2.1.1.1.6. Erderazko adibideak

Mogelek erabili zituen euskarazko adibideak Iztuetaren hiztegian ia berdin mantentzeak erdarazko adibideak ere askotan berdin mantentzea ekarri zuen. Horren adibide garbiena “*Nescatillia, doncella*” sarrera da:



PAbVoc	Iztuetaren hiztegia
<i>“Doncellia. Nescatillia. Virgen. Es voz bascongada. Sus radicales son dontsu e illia, elia ó ulia, segun la variedad de los dialectos. Significa pelo dichoso ú honroso; y siempre ha sido en el bascuence insignia de honra de castidad, el traer las solteras descubierto el pelo. Las casadas y solteras corruptas, deben traerle cubierto. A lo mismo alude la voz nescatillia ó virgen; es decir: yo pido pelo: nik escatu illia, ó bien, yo descubro el pelo, nik ascatu illia. Por eso no quieren oír las honestas doncellas Nesca ó Nesquia, moza; sino Nescatillia ó moza en pelo. Hasta esto llega la curiosidad del idioma” PAbVoc 226.</i>	<i>“Doncella virgen, Nescatilla. Doncella es voz basconganda, sus radicales son Dontzu, y illea, elia, ó ulea, segun la variedad de los dialectos, significa pelo dichoso, ú honroso, y siempre ha sido bascuence insignia de honra de castidad el traer la solteras descubierto el pelo. Las casadas y solteras corruptas deben traerle cubierto. A lo mismo alude la voz nescatillea, ó virgen, es decir. Yo pido pelo Nic escatu illea. Por eso no quieren oír las honestas doncellas Nesca, ó neskea Moza, sino nescatillea, moza en pelo hasta esto se va la curiosidad del idioma” Izt 40r.</i>

Ez dago esan beharrik Iztuetak kopia egin duela, nahiz eta ez dituzten errespetatzen puntuazio zein ortografia arau berak.

Bestelako testu kopiak ere ikus daitezke. Adibidez, Mogelek PAbVoc-en euskal jatorrikoak iruditzen ez zitzaizkion kontsonanteen arbuia eta egin zuen, bai eta erabili ez zituen kontsonanteen justifikazioa ere. Hauxe dio PAbVoc-en dioena F-ari buruz: “No hay tral letra en el bascuence”. Ideia horiengatik, Mogelek ez zuen F-ren sarrerarik ezarri, ez H-aren sarrerarik, ez K-ren sarrerarik, ez eta R-rekin hasten sarrerarik ere, bere ortografia arauen alde.

Hori dela eta, hiztegiko bi hitz nabarmendu beharra datur, “furor” eta “raton”, Mogelek hiztegian duen R-ari buruzko eduki teorikoa irakur baitaiteke zaldibiarraren hiztegiko sarrera hauetan. Bi sarrerak ikusi nahi ez gero begiratu (cf. Urkizu 1996: 115 eta 189).

1. taula

PAbVoc	Iztuetaren hiztegia
---------------	----------------------------



“Ningun vocablo bascongado empieza con la letra R. Estas voces compuestas, Recalde, Renteria, Recacoechea, estan escritas con imperfeccion y les falta la E y debe decirse Errecalde, Errenteria, Errecacoechea, etc. Los escritores han seguido el gusto castellano; los que a las voces bascongadas arrabia, arratoia, erriberia... las han querido desfigurar quitando las precedentes vocales para decir rabia, raton, ribera. La descripcion de estas voces esta en el bascuence: Arrabia, significa comienza el gusano; con este tropo se explica el furor. Arratoia, significa el roedor que sube a los altos; el raton roe y sube los techos. Ribera es erriberia o tierra baja.” PAbVoc 237.

“Furor. arrabia. Ningun vocablo bascongado empieza con la letra R. Estas voces compuestas, Recalde, Renteria, Recacoechea, estan escritas con imperfeccion, y les falta delante una E. v.g. Errecalde, Errenteria, Errecacoechea. Los escritores han seguido el gusto castellano los que a las voces vascongadas arrabia, arratoia, erriberia...las han querido desfigurar quitando las precedentes vocales para decir rabia, raton, ribera. La descripcion de estas voces esta en el bascuence, arrabia, significa comienza el gusano o nido de gusano, con este tropo se explica el furor. Arratoia, significa el roedor que sube a los altos, el raton roe y sube los techos, Ribera es erriberia, tierra baja.” Izt 54r. Eta “Raton Arratoia. Ningun vocablo bascongado empieza con R. Estas voces compuestas, Recalde, Renteria, Recacoechea, estan escritas con imperfeccion, y les falta delante una E. v.g. Errecalde, Errenteria, Errecaco echea. Los escritores han seguido el gusto castello, los que a las voces vascongadas arrabia, arratoia, erriberia & las han querido desfigurar quitando las precedentes vocales para decir rabia, raton, ribera. La descripcion de estas voces esta en el bascuence, arrabia, significa comienza el gusano o nido de



	<i>gusano, con este tropo se explica el furor. Arratoia, significa el roedor que sube a los altos, el raton roe y sube los techos, Ribera es erriberia, tierra baja.” Izt 102v.</i>
--	---

Bistan da hala *Nescatillia* sarrera nola <R>-ari buruzko azalpenak, bietan eduki teoriko bera eta adibide berak egotea, izan *Errecalde*, *Erretereria*, *Errecacoechea* bezalakoak edota “ratón” eta “furor” bezalakoak, Iztuetak noizbait *PAbVoc* erabili izanaren aldeko froga garbiak dira.

2.1.1.1.7. Latinezko adibideak

Latinezko esaldi baten kopiaketa ere egin zuen Iztuetak bere hiztegiko sarrera batean:

2. taula

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Durduba, Onec dauca durduba. <i>Hoc opus, hic labor. En esto esta la dificultad.</i> ”	“ <i>Dificultad, <Hoc opus his labor> en esto esta la dificultad, Durdua, onec dauca durdua.</i> ” Izt 38r.

Bertan, ikus daitekeen bezala, Iztuetak Mogelen *PAbVoc*-eko sarrera zegoen moduan ezarri zuen bere hiztegian, latinezko esaldi bat eta guzti. Esaldian *Hoc opus hic labor* irakur daiteke, eta itzuliz gero, *hori nekeza da, horrek sufrimendua dakar* litzateke.

Honek duda barik Mogelen *PAbVoc*-era begira jartzen gaitu. Gainera, *OEH*-ren arabera (s.v. *dordo*), *durdu*-ren lehen dokumentazioa Mogelen *PAbVoc*-ekoa litzateke. Beraz, honek ere Iztuetak *PAbVoc* erabili izanaren aldeko frogak ematen dizkigu.

2.1.1.1.8. Iztuetaren hiztegiko akatsak

Mogelen *PAbVoc* erabili zuela orain artean ikusi ditugun adibideekin hain argi frogatu eta gero, Iztuetaren hiztegiko forma batzuk zuzenak ez direla erabakitzeke aukera dugu, *PAbVoc*-etik kopiatzerako orduan egindako akatsak baizik.

Hasteko, Iztuetaren hiztegiko sarrera bat nabarmendu beharra daukat: “*Itericia, larua, larubua*” (Izt 65r). Mogelek “*laruba, ictericia*” dakar (*PAbVoc* 233). Gainera,



Astarloaren *Urteco domeca*-z aparte¹¹ berak baino ez du lekukotu *laruba* adiera horretan (OEH, s.v. *laru*). Hala, Sarasolaren aipua (2002: 613) eta aurretik dakargun guztia kontuan hartuz, litekeena da Iztuetak gaizki kopiatu izana, aurretik *al-drialdra*-rekin ikusi dugun moduan.

Hala ere, Iztuetak Astarloak bezala <c> gabe “Itericia” idatzi izanak dudatan jartzen nau, benetan *PAbVoc*-etik hartu zuen ala ez, batez ere aurretik ere ikusi dugulako *ipinzale* eta *aurkile* Astarloaren *Urteco domeca*-k Iztuetari utzi zizkion apurrak.


Bestetik, Iztuetaren hiztegiko *maltmutz* daukagu. OEH-ren arabera (s.v. *malmutz*), Moglek *malmutz* (*PAbVoc* 234) dauka, eta Iztuetak *maltmutz* (71r). Kontuan hartuta Iztuetaren hiztegiak *PAbVoc*-i dion zorra, litekeena da Iztuetak *PAbVoc* presaka kopiatzea eta horregatik hainbat akats egitea.

Izan ere, badira gehiago: *chaldan* (Izt 50r), adibidez. Bi sarrerak aurrez aurre ezarriko ditut, akatsa argiago ikusteko:

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Chaldan, gatz baguia, <i>Simple fatuo sin fuste</i> ” <i>PAbVoc</i> 225	“ <i>Fatuo simple, sin fuste, Chaldana, gatz baguea</i> ” Izt 50r.

Bertan argi ikus daiteke funtsean, biak sarrera bera direla, nahiz eta Iztuetak txarto kopiatu zuen *gatz*. Gainera, OEH-ren arabera, lehen dokumentazioa Mogelen *CC*-koa da, eta hurrengoak Iztuetaren hiztegiara arte Mogeldarren lekukotasunak dira. Beraz, litekeena da arin-arin kopiatu izana. Hemen eskuizkribuaren argazkia ikus dezakegu, akatsa dela egiaztatzearen:

1. irudia



Orain, OEH-ren ustez Iztuetaren akatsa litzatekeen (s.v. *truxu*), baina niretzako transkripzioaren akatsa litzatekeen *truina*-ri buruz hitz egingo dut. Iztuetaren hiztegian


¹¹ *Iterizija edo laruba dauka?* Astar II 38 (ap. OEH, s.v. *laru*).



edizioan (1996: 212) *truina* agertzen da, eta honi jarraiturik *OEH*-n ere bai, nahiz seguruenik *truiu*-ren irakurketa txar bat dela zehazten duen.


Kasu honetan, Iztuetaren akatsa ez da ziurra: ni guztiz etsita nago *truiua* jartzen duela manuskritoan, bertako <u> eta <n>-ak aztertu ondoren. Kontua da *chaldan*-en sarrera (Urkizu 1996: 109) ikuskatzen ari nintzela, nabarmena egin zitzaidala “fatu” hitzak daukan <u> hori asko hurbiltzen zaiola Iztuetaren *truina*-ko <n> horri. Hemen manuskrituko sarreraren erretratua:

2. irudia



Nire ustea frogatzeko asmoz, hemen froga gehiago. Hauek, Iztuetaren manuskrituko <u>-z hasten diren sarrerak lirateke.

3. irudia



Bertan, argi ikusten da, <u> bat egiterakoan, ezker aldean marra bat egiten ziola, <n>-ak marra lausoago bat daukan bitartean. Beraz, kontuan hartuta <u> horrela egiten duela, litekeena da *truiua* ezarri nahi izatea Iztuetak. Hala ere, hau nire ondorio xumea besterik ez da.




2.1.1.1.9. Urkizuren edizioari zenbait zuzenketa

Arestian esan bezala, Iztuetaren hiztegia arakatzean Urkizuren (1996) edizioa erabili dut. Horrekin batera, Urkizuren edizioan dudak sortu zaizkidanean, Koldo Mitxelena liburutegiko Iztuetaren eskuizkribuaz baliatu naiz. Eta hau erabiltzearekin batera, Urkizuren edizioko (1996) hainbat akatsez konturatu naiz. Hala ere, akats hauek aurkitzeak ez luke nahi esan Urkizuren edizioa lan kaskarra denik, baizik eta akats batzuk aurkitu dizkiodala, besterik ez.

Hasteko, Urkizuren edizioan (1996: 140) *zerakia* (ikus Eranskina, s.v. *zetakia*) irakur daiteke. Arraroa egin zitzaidan Mogelen moduan ez jartzea; horregaitik, Iztuetaren eskuizkribuan bilatzea erabaki nuen. Bertan, hasieran ez nuen oso argi izan, <t> edo <r>, zein izan ahal zen. Hori dela eta, Iztuetaren hiztegi eskuizkribatuko <r> sarrerak *zerakia*-ren <r>-arekin erkatu nituen eta, eskuizkribuan argi ikusten ez zen arren, argi zegoen <t> bat izan behar zuela, zeren eta <r> gurutzatuta egiten baitu eta <t>-ri, aldiz, <r>-ak ez duen marra zuzen bat ezartzen baitio Iztuetak.

4. irudia



Argazkiko bigarren sarrerari erreparatzen badiogu, erraz ikus genezake *cetakia* dakarrela, *cerakia* beharrean, zeren eta sarrera berean *cetakia*-ren ondoren datorren hitzak *narria* jartzen baitu, baina ez da *cetakia*-ren ustezko <r>-ra hurbiltzen, baizik eta antz gehiago dauka <t> batekiko.

Ondoren, *ornidu* (1996: 202) hitza ikusiko dugu. Hasteko, Mogelen, eskuizkribuko eta Urkizuren edizioko sarrerak parean ezarriko ditugu:

3. taula


<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren eskuizkribua	Urkizuren edizioa (1996)
---------------	-------------------------	--------------------------




<p>“Ornidu ó imini ornijan. Poner algo en seguridad ó deposito, sea en el juego sea en el apueste, para que lo lleve el ganador. Tambien se aplica al prestamo. Ornidu eguidazu, prestame.” PAbVoc 235</p>	<p>“Seguridad: poner algo en seguridad, sea en el juego, ò apuesta para que lleve al que gana, ornidu o imini ornian: también se aplica al préstamo; ornidu eguidazu, prestame.”</p>	<p>“Seguridad, poner algo en seguridad, sea en el fuego, ó apuesta para que lleve el que gana Ornidu o imini onrnian. Tambien se aplica al prestamo. Ornidu eguidazu; prestame.” Izt 109v.</p>
--	--	--

Bertan, argi eta garbi ikus daiteke Urkizuren edizioan (1996: 202) “juego” irakurri beharrean “fuego” irakurtzen dela. Hala ere, eskuizkribuak argi eta garbi “juego” dakar, Moglek bezala, <f> eta <j> ia berdin egiten dituen arren. Dudak geure ganetik kentzeko, Iztuetaren hiztegi eskuizkribatuaren argazki bat ezarriko dut:

5. irudia




6. irudia



Hala, <f> letraz hasten diren sarrerak begiratu ostean, argi baino ez dago <j> darabilela, <f>-ari erdian beti marratxo bat ezartzen baitio, eta “juego”-k ez darama <f>-ak eraman ohi duen marratxoa. Konparatzearen, Iztuetaren eskuizkribuan (1832: 102) <f>-z hasten diren sarrera batzuen argazki bat ezarriko dut:

7. irudia



Azken adibide bat ezartze aldera, Urkizuren edizioan “amenaza” sarreran (1996: 35) ederki irakur daitekeen *beata* daukagu. Hala ere, Iztuetaren hiztegi eskuizkribatuan




ikus daiteke honek *beaza* idatzi zuela. Aurretik, eskuizkribuko eta Urkizuren edizioiko (1996) sarrerak parean ezarriko ditut:

4. taula

Iztuetaren eskuizkribua	Urkizuren edizioa
“Amenaza, Cemaia, meacha, cemauntzea, beaza” Izt 11.	“Amenaza, Cemaia, meacha, cemauntzea, beata” Izt 11r.

Urkizuk *beata* irakurri arren (1996: 35), ezinezko baten aurrean gaude, eskuizkribuan erabat garbi ez dagoen arren, dudarik gabe *beaza* irakur bidaiteke. Gainera, *beata* OEH-n sartzean ez da emaitzarik aurkitzen; aldiz, *beaza* forma egokia sartzerakoan, ederki ikus daitezke Larramendiren *Suplemento*-ko edota Landucciren hiztegiko lekukotasunak.

8. irudia



Argazkian, argi eta garbi ikus daiteke, ez duela *beata* jartzen, hau da, ezin dela <t> bat izan. Beraz, Patri Urkizuren edizioak (1996) hainbat akats izan ditzakeen arren, dena dela ere, oso lan txukuna dela esan beharra da. Iztuetaren hiztegiaren lehenengo edizioa.

2.1.1.1.10. Ondorioak laburki

Hain garrantzizkoak diren akats bateratzaileak ez badaude ere, arestian aipatutako sarrerak erakusten dituzten batetortzeek eta antzekotasunek aukera ematen dute proposatzeko Iztuetak Mogelen *Peru Abarka*-ren atzeko hiztegia ezagutu eta erabili zuela. Horren froga dira batean eta bestean errepikatzen diren euskal hitzek duten lekukotasun kopuru gutxia eta daukaten bakantasun eta bitxitasun maila. Adibidez, arestian aipatutako *dalea* (ikus OEH, s.v. *dalea*) edo *durdu* (OEH, s.v. *dordo*) hitzen



lekukotasun bakarrak Mogelen *PAbVoc* eta Iztuetaren hiztegiak dira. Hau da, aurretik aipatu ditugun “Mogelen hapaxak”.

Ondorio horretara heltzeko, bi hiztegiak erkatuz, *PAbVoc*-en eta Iztuetaren *Vocabulario del bascuence*-ren (1832) arteko antzekotasun asko aurkitu ditut, bai hitzen forman, bai adibideetan edota bai gaztelaniazko adieretan. Lekukotasun multzo honek laguntzen gaitu ezartzen literatur bizkaierako idazle nabarmenenetarikoa izan zen J.A. Mogelen *PAbVoc* izan zela Iztuetaren hiztegiaren erreferentzia, ez baitago beste modurik azaltzeko batetortze hauek. Nondik kopiatuko zituen bestela, *Peru Abarka*-ko atzeko hiztegiak letren eduki teorikoa edo sarreretakoa adibideak?

2.1.1.2. *Nomenclatura (Nom)* eta Iztuetaren hiztegia erkatuz

PAbVoc-en lortutako emaitzen bidez, *Nom*-en inguruko hipotesi berri bat planteatzea pentsatu nuen. Izan ere, *PAbVoc* Iztuetak irakurria bazuen, litekeena zen *Nom* ere arakatua eta irakurria izatea. Hori dela eta, *PAbVoc*-en erabilitako protokolo bera jarraituz, *Nom*-ek dituen 162 sarrerak *OEH*-n bilatzeari eta ondoren iragazteari ekin nion, batik bat Iztuetaren hiztegian agertzen ziren egiaztatzeko.

Hasteko, *OEH*-n bilatutako 162 sarreretatik 65 izan ziren Iztuetaren hiztegiarekin erlazioa zutenak, dela sarrera berdina mantentzen zelako, dela erdarazko ordaina berdina zekartelako. Hitz hauek izan ziren *Nom* eta Iztuetaren hiztegian berdina edo antzeko agertzen zirenak (ikus 2. eranskina):

Adiuntzaz - *Ale/garauba* - *Albastroan* - *Amaitu* - *Arazoa* - *Arduria* - *Arerio* - *Armiarma* - *Autortu* - *Ausardia/azartasuna* - *Ausartatu/azartatu* - *Auquera* - *Auquera-auqueran* - *Autatu* - *Aztertu* - *Batzacuntzia* - *Batzaarra* - *Burperia/milikia* - *Causinoa/jaramon* - *Cin-ciñez* - *Chiribiria* - *Curuminua* - *Erabagui* - *Eroa* - *Errebesau* - *Esamesac* - *Galtzapena* - *Ganibeta* - *Garaitu* - *garbatu/damutu* - *Iguin* - *Iguitu* - *Irrime/tint* - *Itaunea* - *Itandu* - *Itzcune* - *Izutu* - *Jangarzu* - *Jaon* - *Jarri* - *Jausi* - *Jazo* - *Lapicoa* - *Laquetu* - *Lotu* - *Jadietsi* - *Mormorio* - *Nescatillia* - *Obena* - *Oitu* - *Oroitu/gomutadu* - *Otseiñac* - *Quiñitu/zematu* - *Saloa* - *Salobria* - *Urbildu* - *Usigui*.

Batzuk erakustearren:

5. taula



<i>Nom</i>	Iztuetaren hiztegia
“Garbatu, damutu. <i>Pesarle.</i> ” <i>Nom</i> 66.	“ <i>Pesar.</i> Garbatu <i>como</i> damutu.” Izt 91v.
“Aztertu. <i>Escarbar, examinar.</i> ” <i>Nom</i> 65	“ <i>Escarbar, escudrinar.</i> Aztertu.” Izt 46r.
“Arazoa. <i>Ocupacion molesta.</i> ” <i>Nom</i> 65	“ <i>Ocupacion.</i> Arazoa, ecaira” Izt 82r.

Bertan ikusi genezakeenez, bi hiztegi-tako sarrerak berdin mantentzen ziren. Adibidez: *Garbatu* sarrera, ia berdin agertzen da nahiz eta ordena ez den guztiz mantendu; hala ere, *garbatu damutu*-rekin batera emateak *Nom* erabiltzearen aldeko frogak ematen dizkigu. Bestalde, taulako *aztertu* eta *arazo* sarreretan ere berdintasuna nabari zen, nahiz eta Iztuetak batean erdal ordainetako bat ezberdina izan, eta bestean euskal ordain bat gehitu.

Beraz, *Nom*-eko zenbait sarrera Iztuetaren hiztegian ia berdin agertzeak *Nom* erabili izanaren aldeko frogak ematen zizkigun. Hala ere, oraindik froga gehiagoren beharra zegoen *Nom*-en eta Iztuetaren hiztegiaren arteko erlazioak ezartzeko.

2.1.1.2.1. *Nom* eta *PAbVoc* alderatzen

Aurretik ere, egindako lehen iragazketaren bidez, konturatu nintzen Mogelen *Nom*-en agertzen diren sarrera batzuek *PAbVoc*-en ere bazutela beren lekua. Beraz, bigarren iragazketa bat ere egin nuen, eta *Nom*-eko sarrerak eta *PAbVoc*-eko sarrerak beraien artean erkatu nituen, ea *Nom*-eko sarrerak Iztuetaren hiztegian agertzea kasualitatea zen edo ez ikusteko.

6. taula

<i>Nom</i>	<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Causioa, causinoa, jaramona. <i>Caso, hacer o no</i> ” <i>Nom</i> 66	“Causinua, jaramon <i>Caso, aprecio.</i> Causino edo jaramonic ez eguin. <i>No hacer caso o aprecio</i> ” <i>PAbVoc</i> 224	“ <i>Caso, aprecio</i> Causinua. <i>No hacer caso o aprecio.</i> Causiño edo jaramonic ez eguin” Izt 23r



“Natua. Zetakia. <i>Mancha</i> ” <i>Nom</i> 67	“Natuba <i>Mancha</i> ” <i>PAbVoc</i> 234	“ <i>Mancha</i> Notha, natoa, natua, cerakia, narria, loia” Izt 70r.
“Saloa, Salobria. <i>Devorador en comer.</i> ” <i>Nom</i> 68	“Salobria, ó salua <i>Devorador en comer.</i> <i>Chacur au salobria da: este perro es inhartable</i> ” <i>PAbVoc</i> 237	“ <i>Devorador en comer</i> Salobrea, Salua. Chacur au salobrea da, <i>este perro es inhartable.</i> ” Izt 37v

Goikoak bezalako sarreretan argi ikusten zen *Nom*-en eta *PAbVoc*-en arteko berdintasuna. Hala, bigarren iragazketa honen bidez konturatu nintzen Iztuetak *Nom*-etik bere hiztegiara kopiatu zitzakeen 65 sarreren erdia baino gehiago *PAbVoc*-en ere agertzen zirela: zehazki 41 sarrera bueltan. Hauek dira hitz horiek:

Adiuntzaz - Albastoa - Amaitu - Arduria - Arerio - Armiarma - Auquera - Auquera-auqueran - Ausardia/azartasuna - Ausartatu/azartatu - Autatu - Batzacuntzea - Batzaarra - Burperia/milikia - Causinoa/jaramon - Chiribiria - Zin-ciñez - Curuminua - Eroa - Esamesac - Galtzapena - Iguin - Iguitu - Irrime/tint - Izutu - Jadietsi - Jangarzu - Jaon - Jausi - Laquetu - lotu - Mormorio - Nescatillia - obena - oitu - oroitu/gomutadu - Quiñutu/zematu - Saloa - Salobria - Urbildu - Usigui.

Hori dela eta, hirugarren iragazketa bat egin genuen, *PAbVoc* eta *Nom*-ek konpartitzen zituzten 41 ordain horiek beraien artean alderatuz esanahiaren eta formaren aldetik. Formari dagokionez, 41 horietatik 17 ziren desberdinak euren artean, batez ere arrazoi fonetiko edo morfofonetikoengatik, eta 24 berdin mantentzen ziren Mogelen bi hiztegiatan. Hitz batzuk erakustearren, adibidez:

7. taula

<i>Nom</i>	<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Albastoa A bulto, <i>sin orden.</i> ” <i>Nom</i> 65.	“Albastuan <i>Sin finura.</i> ” <i>PAbVoc</i> 221.	“ <i>Sin finura</i> Albastuan.” Izt 111v.
“Auquera <i>Elección, placer.</i> ” <i>Nom</i> 66.	“Autu, auquera, <i>Escoger, elección.</i> Auquera auqueran, <i>á todo placer.</i> ” <i>PAbVoc</i> 223.	“ <i>Eleccion</i> Aukerea.” Izt 42r



“Irichi, jadeetsi, alcanzau <i>Alcanzar.</i> ” <i>Nom 67.</i>	“Jadetsi; ez dot mecia jadetsi <i>Alcanzar. No he alcanzado la misa.</i> ” <i>PAbVoc 231.</i>	“ <i>Alcanzar</i> Jadetsi, yadietsi. <i>No he alcanzado la misa</i> Ez dot meza jadetsi.” <i>Izt 9r.</i>
--	---	--

Adibide hauen bidez argi ikus daiteke Iztuetak *PAbVoc*-ekin datorrela bat euskal ordainen forman. Hala ere, horrek ez luke nahi esan Iztuetak ez lukeela *Nomenclatura*-ren erabilera egingo, zeren eta hainbat forma baitaude bertan *PAbVoc*-en bidez azaldu ezin litezkeenak.

2.1.1.2.2. *PAbVoc*-en bidez azaldu ezin daitezkeen Iztuetaren hiztegiko hitzak

Iragazketen bidez konturatu nintzen Iztuetak bere hiztegiara kopiatutako 65 sarreretatik 25 bat ezin zirela *PAbVoc*-en bidez azaldu, ez baitziren bertan agertzen. Hori dela eta, hirugarren iragazpen bat egin nuen Iztuetaren hiztegian *OEH*-ren bidez horrelako hitzak aztertzeko. Horrela egiaztatu nuen Iztuetaren hiztegiko sarrera askok Mogelen *Nom*-eko forma berbera mantentzen zutela, eta beste askok sarrera bera edo ia bera. Hauek lirateke hitzok: *Autortu, ale, arazo, arduria, arerio, ausartatu, aztertu, batzaar, dendatu, erabagui, errebesau, eskuma, ganibeta, garbatu, garaitu, izkune, jarri, jazo, otseinac, urreratu, itauna. itandu, jazo, lapikoa, lotu, salatu, zin- zinez.*

Hitz hauek kontuan hartuz, laugarren iragazketa bat ere egin nuen, baten bat *Nom*-eko lehen lekukotasuna zen ikusteko. Horretarako, hitz guztiak *OEH*-n bilatu nituen berriz. Emaitzek ez zuten askotarako balio izan, zeren eta *OEH*-n bilatutako 25etatik 23 ez ziren Mogelen lehen lekukotasunak. Hala ere, bi hitz nabarmen aurkitu nituen: *itzkune* (*Nom 67*) / *izkunea* (*Izt 49r*) eta *aztertu* (*Nom 65*) / *aztertu* (*Izt 46r*). Honek, Iztuetak bere hiztegiaren iturri bezala *Nom* ere erabili izanaren froga sendoak eman zizkigun, bai eta ildoari jarraitzeko aukera ere.

2.1.1.2.3. *Nom*-en euskarazko ordainak Iztuetaren hiztegiarekin konparatuz

Itzkune hitza *OEH*-n (s.v. *hizkune*) bilatzearekin batera konturatu nintzen Mogelek ematen zuen adieran ez zuela inork dokumentatu, Astarloa eta Iztuetaz aparte: bi hiztegiarekin “expresion” itzultzen dute (*Itzkune, Nom 67 / Izkunea* *Izt 49r*) eta haren



dokumentazio literario bakarra Astarloaren *Urteko domeca* lanekoa litzateke: *Itzkune edo berba arinak* (Astar II XV) . Ekonomian oinarrituta, Astarloak Mogelengandik hartuko luke. Beraz, “Mogelen hapax” baten aurrean gaude.

8. taula

<i>Nom</i>	Iztuetaren hiztegia
“Itzkunea, verbeetia, <i>Frases, expresión.</i> ” <i>Nom</i> 66.	“ <i>Expresion.</i> Berbaitasun, izcunea.” Izt 49r

Bestalde, Iztuetaren *expresion* sarreran agertzen den *berbaitasun OEH*-n bilatu (s.v. *berbaegitasun*) eta lekukotasun bakarra agertu da, *Otxandioko eskuizkribua*-rena, Azkuek Juan Mateo Zabalari egotzi zion hiztegiarena. Beraz, bidenabar esanda, baliteke Iztuetak *Otxandioko eskuizkribua* irakurria izatea ere: bestela nondik entzungo zuen hitz horren berri?

2.1.1.2.4. *Nom*-en erderazko ordainak Iztuetaren hiztegiarekin konparatuz

Horren ondoren, Iztuetaren hiztegiko 65 hitz horien erdarazko ordainak erkatu nituen *Nom*-ekoekin, eta hainbat kidetasun agertu ziren. *OEH*-n agertzen ziren lekukotasun lexikografikoei ere erreparatu nien, ea norbaiten lehen lekukotasunik zegoen ikusteko. Eta lekukotasun lexikografiko horiek beraien artean alderatu nituen, Iztuetaren hiztegiara gehien hurbiltzen dena aurkitzeko. Hala, corpus hain mugatu batetik, 4-5 ordain izan ziren nabarmenak.

Hasteko, *adiuntzaz* (*OEH*, s.v. *adiuntza*):

9. taula

Añibarro	<i>Nom</i>	<i>PAbVoc</i>	Izt
“ <i>A buen tiempo</i> ”	“ <i>A buena hora</i> ”	“ <i>Adiuntzaz</i> y <i>adionez, A buena tiempo o hora</i> ”	“ <i>A buena hora</i> ”

Taula honetan agertzen denez, Iztuetak *Adiuntzaz* sarreraren itzulpentzat “*A buena hora*” dauka eta Mogelek *Nom*-en erakusten duen moduan erakusten du Iztuetak.



Kasu honetan OEH-n bilatzerakoan Añibarro ere ikus genezake lekukotasuntzat, baina honek “A buen tiempo” dakar. Hori dela eta, Iztuetak *Nom*-en berdina izatea honen aldeko frogatzat hartuko beharko nuke. Nondik hartuko zukeen bestela?

Hala ere, *aztertu* (*OEH*, s.v. *aztertu*) sarrera izan zen ildoari sarrera jarraitzeko beharrezkoena. Kontua da, *Nom*-eko erdarazko ordainak begiratzen ari nintzela “*aztertu, escarbar, examinar*” sarrerako euskal ordaina *OEH*-n bilatu nuen. Bertan, *Nom*-ez aparte, lekukotutako hiztegiei ere jarreta nien, ea hiztegi batek *Nom*-eko sarrera berdina zeukan ikusteko. Hau da, ea lekukotutako hiztegi batean antzeko sarrera bat zegoen.

Añibarroren hiztegia eta *Nom* baino ez ziren agertzen. Añibarrok hiru sarrera zituen bere hiztegian: “Desentrañar, desenvolver”, “examinar” eta “registrar, hacer descubrimientos”, baina bat ere ez zen hurbiltzen Iztuetaren “*escarbar, escudriñar, aztertu*” sarrerara. Aldiz, *Nom*-eko eta Iztuetaren hiztegiko *aztertu* sarreraren erdal ordainak konparatu eta konturatu nintzen “*escarbar*” ez zela *Nom* eta Iztuetaren hiztegian besterik agertzen.

Konklusio bezala, Iztuetak *Nom*-etik kopia behar izan zuen *aztertu* sarrera, zeren eta Mogelena baita *aztertu*-ren lehen lekukotasuna eta, gainera, “*escarbar*” erdal ordaina ez baita inongo lan lexikografikotan agertzen. Beraz, horrek esan nahi du ez zuela Iztuetak *aztertu* sarrera bere kabuz asmatu, baizik eta nonbaitetik irakurri behar izan zuela eta seguraski *Nom*-etik irakurri zuela.

Honekin batera, Mogelen *Nom*-eko “*autortu, conceder*” *aztertu* nuen. *OEH*-ren arabera (s.v. *aitortu*), horixe da lehen lekukotasun lexikografikoa.

10. taula

<i>Nom</i>	Iztuetaren hiztegia
“ <i>Autortu, confesar, conceder</i> ”	“ <i>Conceder, Autortu</i> ”

Nire ustez, *autortu* “*conceder*” bezala itzultzea ez zuen inork bere kasa asmatuko aurretik nonbaiten irakurri gabe; beraz, badirudi Iztuetak bere hiztegian “*Conceder, autortu*” ezartzerakoan *Nom*-etik hartu zukeela erreferentzia, ez baita lexikografikoki



adiera horretan inon gehiago dokumentatu, Astarloaren *Urteko domecac* (1816-18) lanaz aparte.

Hortaz, Iztuetaren hiztegian dagoen “*Á buena hora, Adiuntzaz*” *Nom*-en moduan ezarrita egoteak eta orain “*Conceder, Autortu*” erdal adieran bat etortzeak, bai eta *Nom*-eko *aztertu* sarrerako “*escarbar*” hitza Iztuetaren hiztegian eta *Nom*-en baino ez agertzeak, hirurek Iztuetak *Nom* erabili izanaren frogak ematen dizkigute, bereziki dauden lekukotasun bakanengatik eta *Nom*-en agertzen den erdal ordain bakan eta berdinekin kopiatu zituelako Iztuetak sarrerak.

2.1.1.2.5. Iztuetaren hiztegiako *Nom*-en aldeko nabarmentasunak

Nom-eko nabarmentasunak medio, Iztuetaren hiztegian *Nom*-eko “*Iguitu, moverse con prontitud*” bilatzen ari nintzela, bertako sarrera baten gainean jarri nuen fokua: “*Mover, Igitu, (sin sineresis). Iguñ, antojo, asco*” (Izt 75r). Bertan bi hitz aski ezberdin bilduta zeuden sarrera baten barruan, “*Mover, igitu*” eta “*Iguñ¹², Antojo, asco*”. Arraroa egin zitzaidan *iguitu* eta *iguñ* batera agertzea. Beraz, *Nom*-en bilatu nituen eta konturatu nintzen *Nom*-en *Igitu* eta *iguñ* aldamenean zeudela, bata bestearen alboan. Hemen, Villasantek (1964) egindako *Nom*-en edizioaren argazki bat, errenkada ikus dezazuen:

10. irudia:

Iguia.	Iguina.	Asco, astío.
Iguitu.	Idem.	Moverse con prontitud.

Goiko irudian ikus genezakeen bezala, Iztuetarean sarreran bezalatsu, *iguitu* eta *iguin* sarrerak aldamenean daude. Horrek esan nahi du balitekeela Iztuetak *Nom*-etik kopiatzerakoan denbora gutxi izan, eta arrapaladan kopiatuko zituela bata bestearen atzetik. Hau ere, beraz, Iztuetak *Nom* erabili izanaren frogatzat har genezake.

¹² Iztuetaren eskuizkribua errebisatu dut eta bertan ere *Igü-ñ* agertzen da; hala ere, dieresia agertzeak *iguiñ* formaren alde egiten du.




Iztuetak Mogelen *PAbVoc*-eko sarrera batzuetatik bi edo gehiago egin dituenean

PAbVoc-etik Iztuetak egindako sarrera errepikatuen kontaketa egin ostean, duda etorri zitzaidan ea *Nom*-ek ere izan zitzakeen Iztuetaen hiztegian sarrera errepikatuak. Horregatik, eranskina ikuskatzen hasi nintzen sarreren errepikapenak aurkitzeko.

Parte batetik, egindako iragazketa erraz egin nuen. Hala, emaitzen arabera, *Nom*-ek dituen 65etatik 54 sarrera baten baino ez dira agertzen, 10 sarrera bitan errepikatzen dira, Iztuetaarenean 20 sarrera osatuz, eta sarrera bakarra hiru aldiz errepikatzen da.

9. irudia



Hau kontuan hartuta, aurretik zeuden 65 sarrerei 20 sarrera gehiago gehitu behar zaizkie, guztira 88 sarrera lortuaz.

2.1.1.2.6. *Nom*-en ondorioak

Alde batetik, *Nom*-eko 162 sarreretatik 65 berraurkitu ditugu Iztuetaen hiztegian. Hala ere, Iztuetak 65etatik 41ek badaukate *PAbVoc*-en bere lekua eta honegatik erabaki behar izan dugu *Nom* ere beharrezkoa den Iztuetaen hiztegiko sarrera horiek azaltzeko. Lehen emaitza *PAbVoc*-en bidez azaldu ezin daitezkeen sarrerek eman digute: bereziki *autortu* eta *itzkune*. Bietan Mogelen *Nom* da lehen lekukotasun bakarra, eta *itzkune* “Mogelen hapax” bat litzateke, gainera, Iztueta baino lehenago Astarloaren *Urteko domeca* lanean baino erabili ez zena. Bestalde, bien erdal adierak, “conceder” eta “expresion”, berdinak dira bi hiztegiatan, eta *autortu* “conceder” itzultzea, ez zuen inork bere kasa asmatuko. Hortaz, *aztertu* eta *autortu* sarrerekin bidea ireki dugu frogatzeko Iztuetak *PABVoc*-ez gainera *Nom* ere erabili zuela bere hiztegia osatzeko.

Iztuetaen hiztegiko *Mover* sarreran *iguitu* ez ezik, esperoezina den “Igüñ, *antojo*, *asco*” ere agertzea azaltzeko modu onena *Nom* izan da, bertan biak aldamenean agertzen



baitira. Hala, Iztuetak *Nom*-eko bi sarrera hauek bere hiztegiko *Mover* sarreran atxikitu zituen, seguruenik nahiagabe (cf. 10. irudia). Kasualitate larregi litzateke bestela. Horregatik, nahi eta nahiez, *Nom* Iztuetaren hiztegiaren iturri izan behar da.

Kontutan hartzen baditugu Iztuetaren hiztegiara *PAbVoc*-eko prozedentzia duten 313 sarrerek eta *Nom*-eko 88ak gehitzen badizkiogu, 401 sarrera ateratzen zaizkigu. Hau da, Iztuetaren hiztegian dauden 6.800 sarreretatik 401 sarrera Mogelen lan lexikografoetatatik lortu dira.

Amaitzeko, Mogelen *Nom* eta *PAbVoc* beraien artean konparatuta, esan beharra dago *Nom*-ek Iztuetaren hiztegiara egindako ekarria txikiagoa dela, batik bat *Nom*-ek duen sarrera murriz eta bolumen txikiagatik. Horrela, Iztuetak *Nom*-en 162 sarreratik 65 kopia zituen, %40,13-a eta *PAbVoc*-etik, %78-a. Beraz, argi dago, *PAbVoc*-en ekarria handiagoa izan zela.



2.2. Iztuetak aipatutako beste idazleak

Urkizuren edizioa (1996) ikuskatzen nengoela, Iztuetaren sarreretan agertzen diren esaldietan jarri nuen fokua, ohikoa baitzen esaldi bat ezartzea, ordainaren adibide bezala. Hori dela eta, sarrerak esaldi bat zekarrenean, esaldiaren prozedentzia aurkitzen saiatu nintzen filologoaren paperean sartzeko, eta esan beharra dago zenbait kasutan adibide ikaragarriak agertu direla, Urkizuk zionarekin bat eginaz (1996: 13) eta ildo berriei atera irekiaz.

Hasiera batean, *epe* sarrerako esaldiari (1996: 174) erreparatu nion: “(...) *orduan pagatzaile gaistoac eguiten dabena escatuco dabe epe eta luzamendu gueiago*” (cf. Eranskina). Hala, esaldiaren prozedentzia jakite aldera, hitz bat bilatu nuen *OEH*-n, zehazki *pagatzaile* (s.v. *pagatzaile*), eta horrela esaldiaren iturria aurkitu nuen. Esaldi originala, Axularren *Geroko gero*-koa (1643) zen eta honela zioen: “*Orduan, pagatzaille gaixtoek egiten dutena, eskatuko dira ephe eta luzamendu gehiago*”.

Honen ostean, konturatu nintzen Añibarrok garai haietarako (1820, gutxi gorabehera) *Geroko gero* itzuli zuela bizkaierara, nahiz ez zuen inoiz kaleratu. Gainera, Iztuetaren esaldiak Bizkai aldeko zantzuak zituen eta, beraz, litekeena zen Añibarroren itzulpen hori ezagutu izana. Hori dela eta, Urgellen edizioan (2001) hiru bertsiok konparatu nituen:

11. taula

Axular	Añibarro	Iztueta
“Orduan, pagatzaille gaixtoek egiten dutena, eskatuko dira ephe eta luzamendu gehiago”	“ascotan egun bateco epea ta astia escatuten eban”	“orduan pagatzaille gaistoac eguiten dabena escatuco dabe epe eta luzamendu gueiago” Izt

Hiru idazleen esaldiak parean ezarri ostean, argi zegoen Axularren *Geroko gero*-tik hartua izan behar zuela Iztuetak esaldi hori, ez baitzuen Añibarrorenarekin ia erlazorik. Gainera, harrigarria da nola Iztuetak bere kabuz itzuli zuen bizkaierara, Axularren *Geroko gero*-ren esaldi hura. Beraz, Urkizuk zioena Axularri buruz (1996: 13) egiaztatu dugu, baina espero ez genuen bide batetik.



Bestetik, *orkoro* sarrerako esaldia ere aztertu nuen. Esaldiak hau dio: “*Escumaco escuco orcoroagaz (asi)*”. Hala, nire ezusterako, Arzadunen dotrinak (1731) dakarrenaren berdina da: “*Eskumako eskuko orkoroagaz*”. Beraz, baliteke Arzadunen dotrina irakurria izatea, zeren eta Santi Onaindiak (1972) baitio lau edizio bueltan izan zirela Iztuetaren hiztegiaren aurretik, 1731, 1758, 1815 eta 1830ekoak zehazkiago. Beraz, baliteke noizbait Iztuetak Arzadunen obra aurrean eduki izana. Honekin, Urkizuk (1996: 13) ezarritako Iztuetaren hiztegiaren iturriari Arzadun ere gehitu beharko litzateke.

Bestetik, Urgelli eskerrak, Iztuetaren *laako* sarrerako esaldiaz jabetu nintzen. *OEH*-n *laako* (s.v. *larako*) bilatuz, lehen lekukotasuna literarioa Mogelen *PAb* agertzen zen, Iztuetak zekarren esaldi berarekin:

12. taula

<i>PAbVoc</i>	Iztuetaren hiztegia
“Laakua, <i>Palo atravesado</i> ” <i>PAbVoc</i> 232 “Zulo bakotxari laakua” <i>PAb</i> 50	“ <i>Tapón, palo atravesado por algún haz para cerrar algún agujero, laakoa. Orrec dauco zulo bacocheo <u>laakoa</u>, ya tiene ese para cada x su tapa, ese tiene respuesta para todo, Laako</i> ” Izt 114v

Hortaz, Iztuetak *PAbVoc*-etik sarrerak kopia ez ezik, badirudi *PAb* ere aurrean izan zuela eta, hortaz, Urkizuk (1996: 13) dioena egia litzateke. Eta honekin, aurretik frogatutako Sarasolaren esana (2002: 13) indartzen da.

Bestalde, *beaza* (*OEH*, s.v. *beaza*) zuzentzerako orduan (cf. 2.1.1.1.8) konturatu nintzen Larramendiren lekukotasuna zela. Aldi batez alde batera utzi nuen iturri hau, ezaguna baita Iztueta larramendizalea izan zela. Hala ere, denbora batera konturatu nintzen Larramendiren *Suplemento*-koa dela, eta honek beste ildo batzuei bidea irekitzen die.

Azkenik, *dendatu* (*OEH*, s.v. *dendatu*) sarrerako esaldiaz hitz egin behar dut. Esaldi honen prozedentzia jakin nahirik, *OEH*-n bilatu nuen euskal ordaina, eta nire ezusterako Juan Jose Mogelen *Baserritar nequezaleentzaco*-arekin (1816) egin nuen topo:



13. taula

<i>Nom</i>	<i>Baserritar nequezaleentzaco</i>	Iztuetaren hiztegia
“Dendatu. <i>Esforzarse</i> , <i>aplicarse</i> ” <i>Nom</i> 66	“Ez zaitiala arren dendatu kendu nai izaten neure gogotik daukadan pensamenturik gozueena” JJMg <i>BasEsc</i> II	“ <i>Esforzarse, no esforzarse</i> <i>á querer quitar</i> . Ez dendatu kendu nai izaten” Izt 46v

Beraz, Urkizuk (1996: 13) Iztuetaren erreferentzien eta iturrien frogarik eman ez zuen arren, frogatzeko Iztueta eta idazle horien arteko emana, hemen jartzen ditut froga xume batzuk, norbaitek noizbait ildoari jarraitu ahal izateko. Gainera, Iztuetak *laako* (cf. *OEH*, s.v. *larako*) sarreran Mogelen *PAb*-eko esaldi bat kopiatzeak ez digu *PAbVoc* erabili izanaren frogak soilik ematen, *PAb* osoa erabili izanaren frogak baizik. Beste kontu bat da Iztuetak *PAb*-en eskuizkribuaren zein kopia erabili zuen aztertzea: hori ezin izan da hemen egin.



3. Zailtasunak

Modu eta bide askotako zailtasunen aurrean aurkitu naiz lan hau egiten ari nintzela. Erreferentzia bibliografietatik hasita, Iztuetaren *Condaira*-ren ale bat aurkitzea, *Orotariko Euskal Hiztegiak* sortu dizkidan arazoak, eta abar.

Hasteko, esan beharra dago, Iztuetaren lanei buruz dagoen literatura oso mugatua dela eta askotan lan horiek kanpo historiara lotuak daudela, bere lexikoari buruzko informazio gutxi agertzen delarik. Salbuespenak ere badaude: Urgell (1999), Sarasola (2002) eta Urkizu (1996), adibidez.

Beste alde batetik, arazoak izan ditut Iztuetaren *Condaira* lortzeko eta, azkenik, Liburuklik.eus-en bidez Interneten irakurri behar izan dut: horrek sortzen duen erosotasun falta kontuan hartu behar da. Dena dela, *Condaira* aurkitu ostean hasi ziren benetako zailtasunak.

Hasiera batean, *OEH*-ri buruz nituen ezagutzak oso mugatuak ziren lan lexikografiko bat egiteko; hortaz, erritmoa geldoa zen. Iztuetaren *Condaira* osoa *OEH*-n egiaztatu ostean, nire ondorioak oso mugatuak ziren. Ez nuen ondorio argirik lortzen. Hala ere, Mogelen *Peru Abarka*-ko lekukotasunak *Condaira*-n agertzean hartu nuen hipotesi hau jorratzeko indarra.

Jarraian, *Condaira*-ko protokolo bera jarraitu nuenez, hau da, *PAbVoc*-eko hitz guztiak *OEH*-n begiratzea, hainbat zailtasun agertu zitzaizkidan, batik bat *OEH*-k ez dituelako forma eta sarrera guztiak lekukotzen, edo batzuetan *OEH*-ko forma gaizki idatzia dagoelako. Adibidez, Mogelen *PAbVoc*-eko *Adeguijac* hitza *OEH*-n bilatzean, ez da agertzen Iztuetaren hiztegiaren berririk. Beste batzuetan, Mogelen *PAbVoc*-en irakur daitekeena eta *OEH*-n irakurtzen dena ez dira berdinak. Adibidez, Mogelek “*Gera ona edo chaarra eguin*” dakar bere hiztegian, eta *OEH*-k, aldiz, “*Jera ona edo txarra egin, hacer buena o mala acogida*” dakar, grafia eguneratu dutelako, baina nire bilaketa zailduz. Kasu honetan ere, Iztuetaren lekukotasuna falta da.

Gainera, *PAbVoc* *OEH*-tik hainbat aldiz pasatu beharra eduki dut, hasieran esan dudana bezala Iztuetaren eta Mogelen hiztegiak zuzenean elkarrekin erkatu beharrean, eta hau lan gogorra izan da. Hor kontuan hartu behar da gero Iztuetaren hiztegian eta *Nom*-en (1802) artean dauden sarreren berdintasunak ere begiratu behar izan direla, aldi berean.



Guztira hiru hiztegioren artean 500 bat sarrera direla kontuan hartuz, *OEH*-ren erabilera masibo honek aplikazio hau kontrolpean izatea ekarri dit.



4. Ondorio orokorrak

Alde batetik, aipagarria da Mogelen *PAbVoc*-en eta Iztuetaren hiztegiaren artean dauden antzekotasunak. Hasteko, lan honen helburu nagusia Juan Antonio Mogelen *PAbVoc*-ek Iztuetaren hiztegiaren daukan lekua aztertzea izanik, Mogelen hiztegiko 241 sarrera aurkitu dira, ia %75a. Horiekin batera beste 72 sarrera errepikatu aurkitu ziren Iztuetaren hiztegiaren, Mogelek erdaraz emandako hitz ezberdinen arabera kokatuak, segur aski sarrerek arinago bila daitezten.

Beste alde batetik, *Nom*-ek Iztuetaren hiztegiaren zeukan eragina ere neurtu da, eta emaitzak hemen ez dira izan *PAbVoc*-eko emaitzak bezalakoak, batik bat *Nom*-ek dituen 162 sarreretatik 65 bueltan agertzen direlako Iztuetaren hiztegiaren eta 65 horietatik 41 *PAbVoc*-en ere agertzen direlako. Hau da, *Nom*-k Iztuetaren hiztegiaren izan zezakeen ekarriaren erdia, *PAbVoc* bidez ere azaldu zitekeen. Gainera, *PAbVoc*-en agertu ziren sarrera errepikatuak zirela medio, Iztuetaren hiztegiaren errepikatuta zeuden sarrerek ere bilatu nituen. Hala, *Nom*-eko 23 sarrera gehiago aurkitu ditut Iztuetaren hiztegiaren. Bertan, 10 sarrera bi bider errepikatuta agertzen dira eta sarrera bakarra hiru aldiz errepikatuta. Hortik, 23 sarrera gehiago, edota, 88 hitz *Nom*-eko prozedentzia dutenak.

Dena den, *Nom* iturritzat hartzeko ideia *Nom*-eko hiru sarrerarengatik izan da: *itzkune* “expresión”, *aztertu* “escarbar” eta *autortu* “conceder”. Alde batetik, *itzkune* (Izt 49r) “expresión” adierarekin Mogelen *Nom*-eko hapax bat litzateke, Iztuetak eta Astarloak baino dokumentatu ez dutena. Bestetik, “escarbar” *aztertu*-ren erdal ordaina *Nom*-en eta Iztuetaren hiztegiaren bakarrik dokumentatzen da. Azkenik, *autortu* “conceder” kidesuna ez da ohikoa, *OEH*-n egiaztatu dudanez: adiera hori bera ematen duen lehen obra *Nom* da, eta Iztuetaren hiztegiaren arte ez da inon gehiago dokumentatu. Beraz, ondorioa litzateke hirurak *Nom*-etik hartuak direla.

Hala ere, Iztuetak *Nom* erabili zuen frogarik hoberena, Iztuetak daukan *mover* sarreran (Izt 75r) ikusten da. “*Mover* Igitu (*sin sineresis*). Igüiña, *Antojo*, *asco*”. Agerian denez, sarrera batean bi sarrera bildu dira arrazoi berezirik gabe: *igitu* eta *iguñ*. Arrazoiak *Nom*-en bilatu nuen, bertan *igitu* eta *iguñ* bata bestearen alboan baitaude. Horrek esan nahi du balitekeela Iztuetak *Nom* kopiatzerakoan denbora gutxi izana, eta arrapaladan kopiatuko zituela bata bestearen atzetik. Hau lotu daiteke *PAbVoc*-en antzeman ditugun akats handiekin (ikusi. 2.1.1.1.8 atala).



Orain arte bildutakoek Iztuetak bere hiztegia osatzeko *Nom* erabili izanaren froga nahikotxo ematen dizkigu. Hala ere, *PAbVoc*-ekin konparatuta, *Nom*-en ekarria murriztagoa da.

Bere aldetik, *PAbVoc*-en batetortze nabarmenak aurkitu ditugu Iztuetaren hiztegiarekiko: hasieran zehazki 241 hitz. Gainera, *PAbVoc*-en eragina hobeto neurtzeko 241 hitz horiek berriro iragazi nituen eta 241 sarrera horietatik 75 sarrera gutxienez Juan Antonio Mogelek lehen aldiz lekukotuak zirela eta hurrengo urteetan Iztuetak dokumentatuak zituela konturatu nintzen. Adibidez, *dalea* (cf. *OEH*, s.v. *dalea*) non, *OEH*-ri jarraiki, Mogel eta Iztueta diren dokumentazio bakarrak. Hala ere, hori urrunago eraman nahi izan nuen eta *PAbVoc*-ek eta Iztuetaren hiztegiak soilik dokumentatu dituzten hitzak bilatzeari ekin nion. Azkenean, horrelako 25 hitz agertu dira, “Mogelen hapaxak” izendatu ditudanak, kontuan hartu gabe Azkueren lekukotasunak, berak argitaratu baitzuen *PAb*.

Iztuetak Mogelek bere hiztegian erabilitako formak askotan berdinduz kopiatu zituen, ez da harrizkoa markinar idazleetan hain ohikoak ziren bokal bikoitzak edota eufoniak agertzea. Adibidez, Iztuetaren hiztegian —batzuetan, ez beti— *eraatsi* eta *iraatsi* bezalako formak irakur daitezke, bai eta $o + a > ua$ *albastuan* edo *salua* bezalakoetan.

Hortaz, bistakoa da Iztuetaren *PAbVoc*-ekiko kopiatze lan hura, nahiz eta Iztuetaren hiztegiak dituen akatsek erakusten diguten segur aski Iztuetak *PAbVoc* kopiatzeko denbora laburra izan zuela eta presaka kopiatu zuela. Hala ere, Mogelen sarreretakoa esaldiak, adibideak eta azalpenak ere kopiatu zituen. Horren adibide bereziki nabarmena da Mogelen *PAbVoc*-eko R letrari buruzko azalpena (*PAbVoc* 237).

Laburbilduz, sarrera guztietan batetortzerik ez dagoen arren, azterketa honetan bildutako datuek adierazi dutenez, ez dago zalantzarik Mogelen *Peru Abarka*-k Iztuetaren lanean izandako eraginaz.

Egindako lan luzeak eta iturriekin egindako konparaketek (Astarloa, Añibarro, Larramendi), Iztuetaren *Condaira* eta hiztegia hobeto ulertzeko eta ezagutzeko aukera ederra eman didate. Horrela, Urkizuren edizioan (1996) dauden akats batzuez jabetu naiz eta behar izan dudanean eskuizkribura jo dut, aldaketa bat proposatzeko. Horrekin batera, Urkizuk (1996: 13) Iztuetaren hiztegiaren iturriez dioena ere zehazten saiatu naiz eta, hala, haren hiztegiako sarreretan agertzen diren esaldi batzuen bidez zenbait iturri agertu



zaizkit, horien artean Urkizuk aipatutako Larramendi, Mogel, Astarloa eta Axular, bai eta berak esandakoei *Otxandioko eskuizkribua* eta Arzadunen dotrina gehitu, hauen zantzuak ere agertu baitira.

Amaitzeko, Urkizuk (1996: 13) dionarekin bat nator, hau da, Iztuetak irakurria zukeen Mogel, eta Sarasolak (2002: 613) zioena frogatu dugu, hau da, *Peru Abarka*-ren atzeko hiztegia ia osorik kopiatu zuela Iztuetak hiztegian.



5. Erreferentzia bibliografikoak

- Altzibar, Xabier. 1990. «Peru Abarca-ren kopiak eta lehen edizioa». *ASJU* 24 (3): 871-887.
<https://doi.org/10.1387/asju.8163>.
- Altzibar, Xabier, 2013, *Bizkaiko euskal idazleen gizarte ikusmoldea (1800-1833)*. (Bidebarrieta 24). Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 20-31.
- Aranburu, P.J., Bidegain, M., Idiakez, A., & Rezola, I. (1993). *Juan Ignazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)*. (III. Gerriko ikerlan sariketa). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Aranburu, Xabier (1972), *Juan Ignacio de Iztueta*. Donostia: CAP-Gráficas Izarra.
- Euskaltzaindia, *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*,
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu-ES&query=2022/08/26
- Euskara Institutua (EHU/UPV), *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)*, <<http://www.ehu.eus/ehg/kc/>>. 2022/08/21
- Ezeizebarrena, Maria Jose, 1990, *Juan Ignazio Iztueta. Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Garmendia Arruebarrena, Jose, 1968, *Obras ineditas de Iztueta*, Bilbo: LGEV.
- Iztueta, J.I. (18??). *Vocabulario de vascuence*. Koldo Mitxelena liburutegia.
<https://www.kmliburutegia.eus/Record/33627>
- Iztueta, J. I. (1847). *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja.
- Mitxelena, Luis (1988), *Historia de la Literatura Vasca*. Donostia/Zarautz: Erein. 118-120 or.
- Mogel, J.A., 1981, *Peru Abarca*, Bilbo: Gerediaga Elkarte.
- Onaindia, S. (1972). *Euskal Literatura* (5 lib., bukatugabea). Bilbo: Etor.
- Sarasola, I., 2002, “Euskal hiztegiaren historiarako oharra: Añibarro, Iztueta eta Aizkibelen hiztegiez eta Azkueren hiztegi gintzaz”, in X. Artiagaitia, P. Goenaga eta J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* [= *ASJU*ren gehigarriak, 44], Bilbo: UPV/EHU, 611-628.
- Urgell, B. 1987. “Esku-liburuaren grafi aldaketak (1802-1821)”, *ASJU* 21:2, 357-387.
- Urgell, B., 1999, F.I. *Lardizabal. Testamentu Berriko Kondaira*, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Urgell, B., 2000, *Larramendiren hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, Gasteiz: UPV/EHUko tesia (http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Blanca_Urgell_TESIA.pdf).



- Urgell, B., 2004, “Etimologia eta neologia Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-ean (1745)”, *Lapurdum* 9, 299-310.
- Urgell, B., 2018, “Lehen Euskara Modernoa”, in J. Gorrochategi, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 543-657.
- Urkizu, P., 1996, “Aurkezpen eta sarrera gisara”, in Urkizu (arg.) *Juan Ignazio Iztueta. Vocabulario de vascuence* [1832]. Zaldibia: Iztueta fundazioa.
- Villasante, L., 1963, *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Gipuzcoa y Navarra. Por Fr. Pedro Antonio de Añibarro*, Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Villasante, L., 1964, “Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel”, *BAP* 20, 61-73.



6. Mogelen eta Iztuetaren hiztegiak sarreraren baterortze edo antzekotasunak

6.1. *PAbVoc* eta Iztutaren hiztegia parez pare

Iztuetak bere hiztegiari kopiatu zituen Juan Antonio Mogelen *PAbVoc*-eko hitzak erakutsiko dira hemen. Horretarako biak konpartitzen dituzten sarrerak parez pare jarriko dira. Mogelen *PAbVoc*-ren 1981eko edizioa erabil dugu, eta bertan 221-240. orrialdeen artean agertzen denez, erreferentziak honela eman ditugu, adibidez: “Abaua, *Panal de miel*.” *PAbVoc* 221.

Iztuetaren hiztegiaren orriak zenbatu ziren, eta orrialdeak *r* (*recto*) eta *v* (*verso*) ohiko markekin ezberdindu behar dira. Hala, Iztuetaren hiztegia 1r-tik 124r-ra arte heltzen da, sekuentzia 1r-1v-2r-2v-...123v-124r-n bukatzen delarik. Beraz, Iztuetaren hiztegiak sarrerak honela eman ditugu, adibidez: “*Panal*, Eztiabia, *como*, abaua.” Izt 86v.

Kasu honetan, bi hiztegiak sarrerak parez-pare jarriko dira, eta sarrera bakoitzeko euskal ordainaren forma estandarra sarrera-buru ezarriko dut, *OEH*-n bilatzeko errazagoa izan dadin. Gure hiztegiak dakartzan forma *OEH*-n azpisarrera denean, berau letra larriz emango dut eta ondotik ohi bezala: adibidez, “cf. *OEH* ADIUNTZAZ, s.v. *adiuntza*”.

Azkenik, Iztuetak bere hiztegiaren errepikatu zituen sarrerak X, XY eta XYZ letren bidez sailkatuko ditut. X daramatenak ez dira errepikatu, XY sarrera behin errepikatu denean jarri dut, eta XYZ bi bider edo gehiago errepikatu denean.

- (cf. *OEH*, s.v. *abagune*): “Abagaudania *Intervalo cómodo para algo, como cuando escampa para caminar. Interregno se puede llamar Abagadunia*” *PAbVoc* 221 vs “*Intervalo como para algo, como cuando escampa para caminar Abagadaunea*” Izt 64v (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *abao*): “Abaua *Panal de miel*” *PAbVoc* 221 vs “*Panal* Eztiabia, *como*, abaua” Izt 86v (X)
- (cf. *OEH*, sv. *abar*): “Abarra *Ramaje de árbol*” *PAbVoc* 221 vs “*Ramage de arbol* Abarra.” Izt 102r (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *abegi*): “Abegija, Arreria, jeria *Acogida*. Abegi, arrera edo jera ona egin *Hacer buena acogida*” *PAbVoc* 221 vs “*Acogida* Abegia, arreria, geria” Izt 4v (X)



- (cf. *OEH*, s.v. *abespelu*): “Abespeluba *Destajo, desconcierto*” *PAbVoc* 221 vs “*Desconcierto Abespelua*” Izt 35v eta “*Destajo, desconcierto Abespelua*” Izt 37r (XY)
- (cf. *OEH*, s.v. *adaki*): “Adakijac *Rama limpiada de hojas ó ramillas*” *PAbVoc* 221 vs “*Rama limpia sin ojas, ni ramillas Adakia*” Izt 102r (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *adegi*): “Adegijac *Sienes*” *PAbVoc* 221 vs “*Sienes Adeguiac*” Izt 111r (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *adinon*): “Adijon *Lo preciso. Se conserva esta voz en el adagio: Alaba bi, ta iru seme, adijon ume*” *PAbVoc* 221 vs “*Lo preciso Adion. Se conserva esta voz en el adagio Alaba bi, ta iru seme, adijon ume*” Izt 69v (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *ADIUNTZAZ* s.v. *adiuntza*): “Adiuntzaz y adi-onez *A buen tiempo u hora*” *PAbVoc* 221 vs “*Á buen tiempo Adiunez*” eta “*Á buena hora Adiuntzaz*” Izt 3v (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *afoinu*): “Apoñuba *Blandura de tiempo*” *PAbVoc* 222 vs “*Blandura de tiempo Apoñua*” Izt 19r eta “*Tiempo, blandura de tiempo Apoñua*” Izt 116r (XY)
- (cf. *OEH*, s.v. *aharrausi*): “Arrausi egin *Bostezar*” *PAbVoc* 222 vs “*Bostezar Arrausin, arrosina, aoza, baltzea egin*” Izt 20r X
- (cf. *OEH*, s.v. *ahazkor*): “Aazkorra *Olbidadizo*” *PAbVoc* 221 vs “*Olbidadizo Aazcorra, azkor*” Izt 84r (X)
- (cf. *OEH*, s.v. *ahosabai*): “Aosabajia *El cielo de la boca*” *PAbVoc* 222 vs “*Boca, tomar en boca Ahotu. Aosabaia Cielo de la boca*” Izt 20r eta “*Cielo de la boca Aosabaia*” Izt 24v (XY)
- (cf. *OEH*, s.v. *ahotu*): “Aotu *Tomar en boca*” *PAbVoc* 222 vs “*Boca, tomar en boca Ahotu. Aosabaia Cielo de la boca*” Izt 20r eta “*Tomar en boca Aotu*” Izt 117r XY
- (cf. *OEH*, s.v. *ainube*): “Añubia *Sombrio. De añoa sombra*” *PAbVoc* 222 vs “*Sombrio Añubea, de añoa, sombra*” eta “*Sombra Gueriza, itzala, añoa*” Izt 112v (cf. *OEH*, s.v. *ainube*) XY
- (cf. *OEH*, s.v. *albastuan*): “Albastuan *Sin finura*” *PAbVoc* 221 vs “*Sin finura albastuan*” Izt 111v X



- (cf. *OEH*, s.v. *amaitu, azkendu*): “Amaitu, azkendu *Finalizar, acabar*” *PAbVoc* 221 vs “*Acabar, finalizar, concluir* Amaitu, azkendu” Izt 4r, “*Concluir, finalizar, acabar* Amaitu, azkendu” Izt 28r eta “*Finalizar, acabar, concluir* Amaitu, azkendu” Izt 51v XYZ
- (cf. *OEH*, s.v. *andui*): “Anduija *Tronco de árbol cortado que queda enterrado*” *PAbVoc* 222 vs “*Tronco de árbol cortado que queda enterrado* Anduea, andubea” Izt 118v X
- (cf. *OEH*, s.v. *apo-apoan*): “Apapuban vici *Vivir con miseria*” *PAbVoc* 222 vs “*Miseria, vivir con miseria ó estreches* Apapuan bici” Izt 74r X
- (cf. *OEH*, s.v. *ardi-aldra*): “Ardi-aldria ó artaldria *Rebaño de ovejas*” *PAbVoc* 222 vs “*Rebaño de ovejas* Ar-taldrea” eta “*Rebaño de cabras* Ar-dialdra” Izt 103r X
- (cf. *OEH*, s.v. *arlo*): “Arlua ó sailla *Cuadros de tierra en huertas y montes*” *PAbVoc* 222 vs “*Cuadro, ó tablar de tierra en huertas, ó montes* Arloa, sailla” Izt 32r eta “*Tablar* Arloa” eta “*Tablar, ó cuadro de tierra en huertas o montes* Arloa, sailla” Izt 114v XYZ
- (cf. *OEH*, s.v. *aro*): “Aroa *Circuito. De aquí Izaro, la isleta que se halla frente de Bermeo y significa círculo de mar*” *PAbVoc* 222 vs “*Circulo* Aroa” Izt 86v X
- (cf. *OEH*, s.v. *arra*): “Arraaia *Palmo, medida*” *PAbVoc* 222 vs “*Palmo, medida* Arraaya” Izt 86v X
- (cf. *OEH*, s.v. *arrakaldu*): “Arracaldu *Abrirse por si, como el erizo de la castaña y la corteza de la nuez*” *PAbVoc* 222 vs “*Abrirse por si el erizo de la castaña y la corteza de la nuez, henderse* Arracaldu” Izt 3r X
- (cf. *OEH*, s.v. *arretondo*): “Arretondo *charra eguin Mirar con desabrimiento*” *PAbVoc* 222 vs “*Mirar con desabrimiento, ó desprecio* Arretondo charra eguin” Izt 73v X
- (cf. *OEH*, s.v. *atondu*): “Atondu *Redondearse para algo; ponerse ó poner a otro en disposición*” *PAbVoc* 222 vs “*Redondearse ó disponerse para algo, o poner a otro en disposicion* Atondu” Izt 104r (cf. *OEH*, s.v. *atondu*) X
- (cf. *OEH*, s.v. *atzerakuntza*): “Atzeracuntzia *Atraso*” *PAbVoc* 222 vs “*Atraso* Atzeracuntza, luzacuntza” Izt 16v X



- (cf. *OEH*, s.v. *aurkintza*): “Arcuntza onetan *En este rincón*” *PAbVoc* 222 vs “*Rincón: en este rincón o sitio Arcuntza onetan*” Izt 106vX
- (cf. *OEH*, s.v. *azarri*): “Azarrija, azcarra *Despejado*” *PAbVoc* 223 vs “*Despejado, despierto Ernea, azarria, azcorra*” Izt 36v X
- (cf. *OEH*, s.v. *azartu*): “Azartu, azartuba, azartasuna *Atreverse, atrevido, atrevimiento*” *PAbVoc* 223 vs “*Atrever Azartu, ausartu*”, “*Atreverse Azartu, ausartatu, azarcuntza*” eta “*Atrevimiento Azarkera, azartasuna*” Izt 16v XZY
- (cf. *OEH*, s.v. *bakan*): “Bacan *Raro, ralo*. Bacan dator nire echera *Rara vez viene a mi casa.*” *PAbVoc* 223 vs “*Raro, ó ralo Bakana*” eta “*Rara vez viene a mi casa Bacan dator nire echera*” Izt 102r eta 102v XY
- (cf. *OEH*, s.v. *banatu*): “Banatu *Dividir, partir, esparcir y cambiar*. Oguija banatu *partir el pan*. Banatu da gauza au erri guztian *Se ha divulgado esto en todo el pueblo*. Banatu eguidazu zortzi ducateko au *Cambiame este doblon de á ocho*” *PAbVoc* 223 vs “*Cambiar, dividir, partir, esparcir Banatu*. Oguija banatu *Partir el pan*. Banatu da gauza au erri guztian *Se ha divulgado esto en todo el pueblo*. Banatu eguidazu zortzi ducateko au *Cambiame este doblon de a ocho, una onza*” Izt 22r, “*Dividir, partir, esparcir y cambiar Banatu*. Oguija banatu *Partir el pan*. Banatu da gauza au erri guztian *Se ha divulgado esto en todo el pueblo*. Banatu eguidazu zortzi ducateko au *Cambiame este doblon de a ocho, una onza*” Izt 39v, “*Esparcir, dividir, partir, cambiar Banatu*. Banatu da gauza au erri guztian *se ha esparcido en todo el pueblo*. Banatu eguidazu zortzi ducateko au *Cambiame este doblon de a ocho, una onza*” Izt 46v eta “*Partir, dividir, esparcir y cambiar Banatu*” Izt 88r XYZ
- (cf. *OEH*, s.v. *barda*): “*Bardia ó zarbia, chusaquia ó garijia Ramillas de árboles ó chamiza. Todas las cuatro voces son sinonimos*” *PAbVoc* 223 vs “*Ramillas de árboles Bardea, zarbea, chuchakea, iguri-ia; las cuatro voces son sinonimas*” Izt 102r X
- (cf. *OEH*, s.v. *barruti*): “Barrutija *Lugar recogido ó un cerrado*” *PAbVoc* 224 vs “*Lugar recogido ó cerrado Barrutia*” Izt 69v eta “*Recogido lugar ó cerrado Barrutia*” Izt 103v XY



- (cf. *OEH*, s.v. *basamortu*): “Basamortua *Soledad espantosa*” *PAbVoc* 224 vs “*Desierto, soledad espantosa* Basamortua” Izt 36r eta “*Soledad espantosa, desierto* Basa-mortua” Izt 112r XY
- (cf. *OEH*, s.v. *batzakuntza* eta *batzar*): “Batzauntzia *Junta ó congregacion; pero* batzaarra, *es junta de ancianos ó senado*” *PAbVoc* 224 vs “*Congregacion, junta* Batzauntzea” Izt 28v eta “*Junta, congregacion* Batzauntzea” eta “*Junta de ancianos senado, Batzarra*” Izt 66r XY
- (cf. *OEH*, s.v. *behazun*): “Biaztuna *Hiel*” *PAbVoc* 224 vs “*Hiel* Biaztuna” Izt 59v (cf. *OEH*, s.v. *behazun*) X
- (cf. *OEH*, s.v. *behizegi*): “Beiseguija *Vaca que tiene cria crecida*” *PAbVoc* 223 vs “*Baca que tiene cria crecida* Beiseguija” Izt 18v X
- (cf. *OEH*, s.v. *bereko*): “Berekoija *Amigo de hacer a su gusto*” *PAbVoc* 223 vs “*Amigo de hacer su gusto, egoista* Berekoia” Izt 10v eta “*Egoista, amigo de hacer a su gusto* Berekoia” Izt 41v XY
- (cf. *OEH*, s.v. *berraldatu*): “Birlandu ó biraldatu *Trasplantar*” *PAbVoc* 224 vs “*Trasplantar* Birlandatu” Izt 118r X
- (cf. *OEH*, s.v. *beseinga*): “Besengia *Vaca estéril*” *PAbVoc* 223 vs “*Baca esteril* Beseinguea” Izt 18v X
- (cf. *OEH*, s.v. *betaurreko*): “Betaurrecuac *Anteojos*” *PAbVoc* 224 vs “*Anteojos* Beguioordecoac, Betaurrecoac” Izt 11v X
- (cf. *OEH*, s.v. *betale*): “Betazalac, ó betaliac *Párpados*” *PAbVoc* 224 vs “*Parpados* Betazalac, betaleac” Izt 88r¹³ X
- (cf. *OEH*, s.v. *betile*): “Betuliac *Pestañas*” *PAbVoc* 224 vs “*Pestañas* Betuleac” Izt 92r X
- (cf. *OEH*, s.v. *betsein*): “Betseiña *Niña de los ojos*” *PAbVoc* 224 vs “*Niña de los ojos* Betseiña, beguietaco niniac” Izt 78v X

¹³ Alfabetikoki okerreko lekuan ezarri zuen Iztuetak bere hiztegian, “partes” sarreraren ondoren irakur daitekeelarik.



- (cf. *OEH*, s.v. *bezatu*): “Bezau, eci *Domar*. Neuc bezauc dot *Yo lo domarê*” *PAbVoc* 223 vs “*Domar* Ezi, ezitu, beazu. Neuc bezauc dot *Yo le domarê*. *Mal domado o criado* Uzarkia” Izt 40r (cf. *OEH*, s.v. *bezatu*) X
- (cf. *OEH*, s.v. *birrindu*): “*Birrindu dividir*. *Birrindu ó banatuc dot Le destrozarê*” *PAbVoc* 224 vs “*Destrozar* *Birrindu*, banatu” Izt 37r eta “*Dividir* *Birrindu*. *Birrinduc dot, ó banatuc dot Destrozarê*” Izt 39v XY
- (cf. *OEH*, s.v. *bisuts*): “*Bisutsa Cerrazon*” *PAbVoc* 224 vs “*Cerrazon, ó espesura de agua, ó niebla* *Bisutsa*” Izt 24r X
- (cf. *OEH*, s.v. *bitsadera*): “*Bitsadera Espumadera*” *PAbVoc* 224 vs “*Espumadera* *Bitsadera*” Izt 47r X
- (cf. *OEH*, s.v. *dalea*): “*Dalia Piedra radera*” *PAbVoc* 225 vs “*Piedra vadera* *Dalea*” Izt 92v eta “*Vadera, piedra* *Dalea*” Izt 120r XY
- (cf. *OEH*, DARDA GAÑIAN s.v. *darda*): “*Darda gañian erabili (frase) Traer al retortero*” *PAbVoc* 227 vs “*Movimiento, temblor, convulsion* *Dardarea*. Otzac dardar narabil *Tiemblo de frio*. *Darda gañean Traher al retortero*” Izt 75v X
- (cf. *OEH*, s.v. *dardara*): “*Dardaria Temblor y movimiento convulsivo*. Otzac dardar narabil” *PAbVoc* 226 vs “*Movimiento, temblor, convulsion* *Dardarea*. Otzac dardar narabil, *Tiemblo de frio*. *Darda gañean Traher al retortero*” Izt 75v eta “*Temblor, movimiento, convulsion* *Dardarea*” Izt 115r. XY
- (cf. *OEH*, s.v. *debekatu*): “*Debecau Prohibir*” *PAbVoc* 225 vs “*Prohivir* *Debecau, eragotzi*” Izt 98v X
- (cf. *OEH*, s.v. *deiera*): “*Deijac ó deijerac Proclamas*” *PAbVoc* 225 vs “*Proclamas* *Deierac como deiac, deiuac*” eta “*Proclamas, llamamientos* *Deiac, deierac*” Izt 98v XY
- (cf. *OEH*, s.v. *dontsu*): “*Dontsuba Dichoso, feliz*” *PAbVoc* 226 vs “*Dichoso de ese* *Ac bai dauzcazala egunac; ese si que tiene fortuna; dichoso de ese; dichoso* *Dontsua*” Izt 38r eta “*Feliz, dichoso* *Doatsua, dontsua*” Izt 50v XY
- (cf. *OEH*, s.v. *dontzeila*): “*Doncellia Nescatillia. Virgen. Es voz bascongada. Sus radicales son dontsu e illia, elia ó ulia, segun la variedad de los dialectos. Significa pelo dichoso ú honroso; y siempre ha sido en el bascuence insignia de honra de castidad, el traer las solteras descubierto el pelo. Las casadas y solteras corruptas, deben traerle cubierto. A lo mismo alude la voz nescatillia ó virgen; es*



decir: yo pido pelo: nik escatu illia, ó bien, yo descubro el pelo, nik ascatu illia. Por eso no quieren oír las honestas doncellas Nesca ó Nesquia, moza; sino Nescatillia ó moza en pelo. Hasta esto llega la curiosidad del idioma” PAbVoc 226 vs “Doncella virgen, Nescatilla. Doncella es voz basconganda, sus radicales son Dontzu, y illea, elia, ó ulea, según la variedad de los dialectos, significa pelo dichoso, ú honroso, y siempre ha sido bascuence insignia de honra de castidad el traer la solteras descurbierto el pelo. Las casadas y solteras corruptas deben traerle cubierto. A lo mismo alude la voz nescatillea, ó virgen, es decir. Yo pido pelo Nik escatu illea. Por eso no quieren oír las honestas doncellas Nesca, ó neskea moza en pelo hasta esto se va la curiosidad del idioma” Izt 40r X

- (cf. *OEH*, s.v. *dordo*): “Durduba Onec dauca durduba. *Hoc opus, hic labor. En esto esta la dificultad” MgPAbVoc 227 vs “Dificultad: “Hoc opus his labor” en esto esta la dificultad, durdua, onec dauca durdua” Izt 38r X*
- (cf. *OEH*, s.v. *dulabre*): “Dulabria *De mucho remango” PAbVoc 226 vs “Remango: de mucho remango Dulabrea” Izt 104r (cf. OEH, s.v. dulabre) X*
- (cf. *OEH*, s.v. *DUIN-DUINA* s.v. *duin*): “Duin-duina *Lo muy preciso. Tambien se dice zure duin ó lain banaz: ya puedo tanto como tu; y tambien, izan nadin duin, edo biar bestecua; para que sea capaz ó digno” PAbVoc 226 vs “Lo más preciso Duin-duiña” Izt 69r eta “Preciso: lo muy preciso Duin-duiña; tambien se dice Zure duin naz Soy tanto como tu. Izan nadin ó nadien duin Para que sea digno ó capaz” Izt 69r XY*
- (cf. *OEH*, s.v. *durundi*): “Durundija *Ruido, golpeo. De aqui en bascuence el vocablo Durendia y en castellano duende, es decir bullicioso, golpeador” PAbVoc 226 vs “Golpeo, ruido Durundea. De aqui en bascuence el vocablo durendea, y en castellano duende” Izt 56r eta “Ruido, golpeo, Durundea; de aqui en bascuence durundea; y en castellano duende” Izt 107v XY*
- (cf. *OEH*, s.v. *ekandu*): “Ecandu, ecanduba *Acostumbrarse: costumbre” PAbVoc 227 vs “Acostumbrarse Ecandu, oitu (ecandutu) eguin; eguin bear zana; ecandua costumbre” eta “Acostumbrarse Ecandu, eguin; eguina dago artara” Izt 5r XY*
